

**ONGIZATE, KIROL, KULTURA, HEZKUNTZA, EUSKARA,  
BERDINTASUN ETA MERKATARITZAREN DINAMIZAZIOAREN  
ARLOKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA  
OROKORRA, ERANDIO ELIZATEKO UDALARENA**

**AZALPEN ZATIA**

**ERANDIO ELIZATEKO UDALAREN DIRU LAGUNTZEI BURUZKO ORDENANTZA OROKOR** honen xedea da udal korporazioak ezarritako lehentasunezko helburuetariko bati laguntzea, hau da, zenbait eremutan azaltzen diren eta udalerriko herritarrek eskatzen dituzten premiei eta kezkei erantzutea. Gauzak horrela, **ordenantza orokor** honen bidez herritarren ekonomi eta gizarte eskaerei erantzuteko asmoa dago sustapena erabiliz eta haren lanabes nagusiaz baliatuz, diru laguntzez, hain zuzen ere.

Herri administrazioek sustapen jarduera hori bultzatzeko eta haren garapena zabaltzeko eta herri administrazio guztiei aplikatzeko moduko marko juridikoa eta printzipio orokorrak ezartzeko, 2003ko azaroaren 17an Diru **Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Nagusia** onetsi zen. Halaber, 2006ko uztailaren 21ean aipatutako **38/2003 Legearen Araudia** onetsi zen **87/2006 Errege Dekretuaren bidez** eta, horrela, araudi horren azken xedapenetarik hirugarrena bete zen, betiere arau horretan ezarritakoa txertatzeko asmoz.

**Diru Laguntzei buruzko Legeak** ezartzen du diru laguntzen emakida arautzen duten emakidei buruzko arauak onesteko betebeharra; hori guztia, toki korporazioei dagokienez, aurrekontua betearazteko oinarrien markoan onetsi beharko da diru laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bidez edo diru laguntza mota desberdinetarako ordenantza zehatz baten bidez.

Hori guztia kontuan hartuta, **ERANDIOKO UDALAK** diru laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza hau onestea erabaki du, betiere bere jardueraren garapenari ekiteko asmoak bultzatuta eta Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.1. artikulua ezarritakoaren arabera; izan ere, azken artikulua horrek ezartzen du udalerriak bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen eremuan era guztietako jarduerak bultzatu ahal izango dituela eta herritarren premiak eta xedeak asebetetzen laguntzeko zerbitzu publikoak eman ditzakeela.

Beste alde batetik, nabarmendu beharra dago diru laguntzen jarduera, ikuspegi ekonomikoaren aldetik, aurrekontu publikoaren modalitate garrantzitsua dela; horren ondorioz, **Aurrekontu Orekari buruzko Lege Orokorren** testu bategina onesten duen **abenduaren 28ko 2/2007 Legegintzako Errege Dekretuak** arautzen dituen aurrekontu politikaren jarraibideei eta oreka nahiz hazkunde ekonomikoaren irizpideei egokitu behar zaie ezinbestean.

Edozein kasutan ere, **ordenantza** honek aplikagarria den arautegiaren isla izan nahi du eta, diru laguntzen kudeaketari dagokionez, bereziki nabarmendu behar dira aipatutako arautegietan ezartzen diren printzipiorik garrantzitsuenak, hala nola objektibotasuna, berdintasuna, publizitatea, gardentasuna, lehiakortasuna, diskriminaziorik eza, eraginkortasuna eta eragingarritasuna.

Horretan oinarrituz, udal korporazioak ordenantza hau onesteko erabakia hartu du, beharrezko arauzko garapena bilatuz, betiere diru laguntzen emakida Erandioko udalerriko premiei eta zirkunstantziei egokitzeko eta udalerriko biztanle guztiei begira benetan interesgarritzat hartzen diren jarduerak sustatzeko.

Halaber, azpimarratzekoa da ordenantza hau **ERANDIOKO UDALARI** aplikagarri izango zaiola, eta ordenantzan parametro horri men egiten zaionean ulertu beharra dago horrek lurralde administrazioari ez ezik administrazio instrumentalari ere eragiten diola, eta, hortaz, udaleko erakunde autonomoei aplikatuko zaiela. Gauzak horrela, udala aipatzen dugun bakoitzean, erakunde autonomoak ere aipatzen ditugu; izan ere, horiek ere herri administrazioa dira, bai eta udal zerbitzuen eta jardueren kudeatzailea ere.

## I. TITULUA.- DIRU LAGUNTZAK ORO HAR

### **LEHENENGO KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua.- XEDEA.**

Honako udal arau hau ordenantza bat da eta haren xedea da **ERANDIO ELIZATEKO UDALAK** eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten diru laguntzen erregulazio orokorra ezartzea, betiere **Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Legearen** 9.2. eta 17. artikuluek ezartzen dutenarekin bat etorriz; horretarako, udal arau honek jasoko du zeintzuk izango diren udalak eta haren erakunde autonomoek sustapen jarduera gisa diru laguntzak emateko erabiliko dituzten printzipioak eta prozedura, betiere erregulazio honen azalpen zatian zehaztutakoaren arabera.

#### **2. artikulua.- ARAUBIDE JURIDIKOA.**

**ERANDIO ELIZATEKO UDALAK** emango dituen edo eman ditzakeen eta ordenantza honen erregulazioaren xede diren diru laguntzak honako xedapen hauen arabera ere eraenduko dira:

- Diru Laguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Legea.
- 38/2003 Legearen Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- Toki araubideari buruzko arautegia, bereziki Toki Araubideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- **Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei** buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Araua.
- **Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei** buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua.
- **ERANDIO ELIZATEKO UDALAREN aurrekontu orokorra** eta aurrekontu betearazpenari buruzko udal arauak.
- Administrazio zuzenbidearen arloan aplikagarriak diren bestelako xedapenak.

- Horien ezean, zuzenbide pribatuari buruzko arauak.

### 3. artikulua.- **PRINTZIPIO OROKORRAK.**

- 1.- **ERANDIO ELIZATEKO UDALAK** diru laguntzak emateko aurrera eramango duen jarduera arbitrariotasunik eta diskriminaziorik gabe garatuko da diru laguntzak emateko eta kudeatzeko orduan; horretarako, printzipio hauek errespetatuko ditu:
  - a) Aldez aurretiko publizitatea, aldez aurretik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean diru laguntza bakoitza arautzen dituen deialdia eta oinarri zehatzak argitara emanez edo, diru laguntza nominatiboen kasuan, horiek udalaren aurrekontuan sartuz, eta ondorengo publizitatea, betiere Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik eta bertan ezartzen diren salbuespenak kontuan hartuz.
  - b) Gardentasuna, objektibotasuna eta berdintasuna, lehia askeko eta diskriminaziorik gabeko arauak errespetatuz; hala ere, diru laguntzak emateko liberalitate irizpide hutsetan oinarritutako erabakiak baliorik gabekoak izango dira.
  - c) Lehia askea; hori diru laguntzak emateko ohiko prozeduran islatu behar izango da.
- 2.- Era berean, diru laguntzen kudeaketak aurrekontu egonkortasunaren helburuak bete behar izango ditu, baliabide publikoen erabilera eraginkorra eginez, betiere udalak ezarritako helburuak eraginkortasunez betetzera zuzendua. Hori dela eta, egokitzat jotzen dituen baliabideak erabiliz, udalak kontrolatu ahal izango du ea onuradunek egindako gastuak diruz lagundutako helburura egokitu diren ala ez.
- 3.- Diru laguntzak, edozein kasutan ere, borondatezkoak eta behin-behinekoak dira, baldin eta legez edo arau bidez bestelakorik ezartzen ez bada, eta ez dute onuradunen aldeko eskubide eskuraturik ekarriko eta horien emakidak ez da erabakigarria izango beste bat eman dadin.
- 4.- Udalak emandako diru laguntzek interes publikoko xedea bete behar izango dute, horien emakida baldintzen pean jarriko da eta izaera ez-itzulgarria izango dute, horiek itzultzeari kalterik egin gabe, baldin eta ordenantza honek, arautegi aplikagarriak edota oinarri zehatzek eta deialdiek ezarritako emakidaren baldintzak betetzen ez badira.

- 5.- Diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa ezin izango da izan onuradunak erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako beste diru laguntzekin batera diru laguntzaren gaiaren kostua baino handiagoa edo deialdiak edo oinarri arau-emaeleek ezarritakoa baino txikiagoa. Nolanahi ere den, udalak deialdian edo oinarrietan diru laguntzen bateraezintasuna ezartzeko aukera dauka beste erakunde batetik eskuratutako laguntzei dagokienez.

Gainera, diru laguntza arautzen duten oinarriek diruz lagundutako helburu, proiektu edo jarduera estaltzeko behar besteko finantzazio zenbateko bat exijitu ahal izango dute; horren ekarpena sinesgarriro egiaztatu behar izango da.

## BIGARREN KAPITULUA:

# DIRU LAGUNTZEN GAIA ETA SUBJEKTUAK

### 4. artikulua.- DIRU LAGUNTZAREN KONTZEPTUA.

Ordenantza hau aplikatzeko ondorioetarako eta arautegi aplikagarriak ezarritakoarekin bat etorriz, ***diru laguntzat*** hartzen dira **ERANDIO ELIZATEKO UDALAK** pertsona fisiko edo juridikoen alde (publikoak edo pribatuak izan) emandako diru izaerako xedapen guztiak; horretarako, hala ere, ondoren deskribatzen diren beharkizun hauek bete behar izango dira:

- Diru laguntza ematea pertsona edo erakunde onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe.
- Diru laguntza helburu bat betetzera, proiektu bat gauzatzera, jarduera bat egitera, jokabide berezi bat hartzera, egoera batean lehiatzera... zuzenduta egotea; hori guztia eginda edo egiteko egon daiteke eta pertsona edo erakunde onuradunak ezinbestean bete behar izango ditu ezarritako betebeharrak material eta formalak. Edozein kasutan ere, diru laguntzaren oinarri zehatzetan zehaztu eta arautuko da garatu beharreko helburu, proiektu, jarduera edo jokabide hori, betiere bertan ezarriko diren ezaugarriekin bat etorriz.
- Finantzatutako proiektuak, ekintzak, jokabideak edo egoerak herri erabilerako edo gizarte intereseko jarduera bat edo xede publiko bat sustatzeko helburua izatea. Edozein kasutan ere, honako hauek ordenantza honetan araututako diru laguntza **kontzeptutik kanpo geratuko dira**:
  - a) Udalak egindako diru ekarpenak:
    - Herri administrazioen alde.
    - Haren menpeko erakunde autonomoen edo erakunde publikoen alde, baldin eta haien eskumenen eremuan erakunde bakoitzaren jarduera oro har finantzatzera zuzenduta badaude.

- b) Udalak parte hartzen duen eta toki erakundeek interes erkideak babesteko eta sustatzeko sortu dituen elkarteei kuoten kontzeptupean egindako diru ekarpenak, betiere Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legearen 5. xedapen gehigarriak ezarritakoaren itzalpean.
- c) Pertsona edo erakunde onuradunak alde aurretik eskatu gabe emandako sariak.
- d) Alderdi politikoak finantzatzen dituzten diru laguntzak.
- e) Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 2, 3 eta 4. artikuluetan ezarritakoak.

## 5. artikulua.- **DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERAK.**

Diru laguntza bakoitzean araututako deialdi eta oinarriek diru lagun daitezkeen helburuak, jarduerak, proiektuak edo jokabideak ezarriko dituzte, betiere ordenantza honek ezarritakoarekin bat etorriz.

## 6. artikulua.- **SUBJEKTU PARTE HARTZAILEAK.**

### 1.- **DIRU LAGUNTZA EMATEN DUEN ORGANOA.**

**ERANDIOKO UDALAK** emango dituen diru laguntzen eskumena alkatetzarena izango da edo eskuordetutako zinegotzigoarena, atal bakoitzeko gastu xedapenen eta ordainketa aginduen eskumenen arabera; horretarako, diru laguntzaren balioak ez du gainditu beharko aurrekontuaren ohiko baliabideen ehuneko hamar (%10), ez eta 6.000.000,00 euroko kopurua, horien barnean zenbait urtetarakoak sartuz horien iraupena lau urtetik gorakoa ez bada Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 2. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera. Urte kopuru hori gainditzen bada, diru laguntza emango duen organoa udalbatza izango da.

Erakunde autonomoetan eskumenak erakunde bakoitzaren buruarenak edo zuzendaritzarenak izango dira.

## 2.- **ERAKUNDE ONURADUNA.**

Emakida bidezko egiten duen egoeran dagoen edo diru laguntzaren emakida arrazoitzen duen jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoa (publikoa edo pribatua izanagatik ere), betiere oinarri arau-emaile zehatzetan eta, hala badagokio, deialdian araututakoarekin bat etorriz.

Pertsona juridikoei eta izaera juridikorik gabeko elkarteei dagokienez, legeria orokorrean jasotakoaz gain, aintzat hartu behar izango da deialdi bakoitzean eta, hala badagokio, oinarri arau-emaile zehatzetan ezarritakoa; izan ere, horiek kasu bakoitzean egokitzen jotzen diren zehaztasun eta beharkizun guztiak arautuko dituzte.

Edozein kasutan ere, ez dira onuradunak izango Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua ezarritako kasuetariko edozein betetzen dutenak.

## 3.- **ERAKUNDE LAGUNTZAILEA.**

**ERANDIOKO UDALAREN** izenean eta kontura onuradunari egindako diru ekarpena ematen eta banatzen duena edo udalarekin lankidetzan jarduten duena diru laguntza kudeatzeko bestelako alderdietan.

Legeria orokorrarekin bat etorriz, honako hauek hartu ahal izango dira laguntzailetzat:

- a) Herri administrazioetan parte hartzen duten erakundeak, herri elkarteak eta merkataritza sozietateak.
- b) Udalak parte hartzen duen eta toki erakundeek interes erkideak babesteko eta sustatzeko sortu dituen elkarteak, betiere Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legearen 5. xedapen gehigarriaren itzalpean.
- c) Oinarri arau-emailek ezarritako kaudimen eta eraginkortasun baldintzak betetzen dituzten gainerako pertsona fisiko eta juridikoak.
- d) Estatuaren administrazio orokorra eta haren erakunde autonomoak.

Edozein kasutan ere, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua jasotako kasuetariko edozeinetan sartzen direnak ezin izango dira erakunde laguntzaileak izan; halaber, erakunde laguntzaileek kasu bakoitzean ezar daitezkeen kaudimen eta eraginkortasun baldintzak

bete behar izango dituzte. Dena dela, arau orokor gisa, egiaztapen baliabideak kontratazio publikoari buruzko legeriak ezarritakoak izango dira:

- Kaudimena diru laguntzak kudeatzeko gaitasunaren arabera neurtuko da ekonomiari eta finantza egoerari nahiz profesionaltasunari eta maila teknikoari begiratuta.
- Laguntza publikoa kudeatzeko dauzkan bitartekoen egokitasunaren araberrako gaitasuna.

Erakunde laguntzailearen izaera emateari dagokionez, Erandioko Udaleko kontu-hartzailetzari dagokio proposamena egitea, behin erakunde interesdunek beharrezko eskabidea egin eta gero; eskabidean honako datu hauek azalduko dira, besteak beste:

- Erakundearen identifikazio datuak
- Baliabide ekonomikoen bolumena, eurotan adieraziak
- Langileen zerrenda
- Baliabide teknikoaren zerrenda

## 7. artikulua.- **ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK.**

Legeriak edo deialdi zehatz bakoitzak eska ditzaketenez gain, **ERANDIOKO UDALAK** emandako diru laguntza baten onuradunak diren pertsonak edo erakundeek ezinbestean bete behar izango dituzte honako betebeharrak hauek:

- a) Diru laguntzen emakida arrazoitzen duen xedea bete, proiektua gauzatu, jarduera aurrera eramane edo jokabidea hartu beharko dute, hala badagokio, udalak ezarritako berezitasunak aintzat harturik.
- b) Diru laguntza ematen duen organoari edo, hala denean, erakunde laguntzaileari justifikatzea beharkizunak eta baldintzak bete direla, jarduera gauzatu dela eta diru laguntzaren emakidak edo gozamenak zehaztutako helburua bete dela; justifikazio hori barik ezin izango da lortu **ERANDIOKO UDALAK** bestelako diru laguntzaren bat ematea.

- c) Diru laguntza ematen duen organoak edo, hala badagokio, erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapen zereginen pean jartzea, bai eta kontrol organo eskudunek (nazionalak nahiz batasunekoak izan) finantzak egiaztatzeke eta kontrolatzeko egin ditzaketen bestelakoen pean ere; horretarako, behar adina informazio eman beharko dute gorago aipatutako egintzak aurrera eramateko.
- d) Diru laguntza ematen duen organoari edo erakunde laguntzaileari jakinaraztea ea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen duten bestelako diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik lortu den ala ez. Jakinarazpen hori egin beharko da horren berri izan bezain laster eta, betiere, jasotako fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehenago.
- e) Emakidari buruzko ebazpen proposamena egin aurretik egiaztatu behar izango da erakundeak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela, betiere arau bidez ezarritako eran eta Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hamazortzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari kalterik egin gabe. Era berean, pertsona edo erakunde onuradun bakoitzak 3.000,00 eurotik gora jaso ez duten diru laguntzetan egiaztagiri horiek aldatu ahal izango dira hori ziurtatzen duten adierazpen erantzule baten ordean, ordenantza honen II. tituluak kasu zehatz bakoitzerako ezarritako kasuetan izan ezik.

Udalak berak egiaztatuko du pertsona edo erakunde onuradunak ordainduta dauzkala Erandioko udal ogasuneko zerga guztiak. Zerga betebeharrak betetzen ez badira, horiek betetzeko hamar eguneko epea emango da, baldin eta oinarri arau-emaile zehatzek bestelako eperik ezartzen ez badute.

- f) Merkataritza legeriak eta legeria sektorialak kasu bakoitzean pertsona edo erakunde onuradunari eskatu bezala, kontabilitate liburuak, erregistro diligentziadunak eta behar bezala ikuskatutako gainerako agiriak izatea, bai eta diru laguntzen oinarri arau-emaileek eskatutako kontabilitate egoerak eta erregistro zehatzak ere, egiaztapen eta kontrol ahalmenen egikaritzapena behar bezala bermatzeko asmoz.
- g) Jasotako fondoen aplikazioaren justifikazio agiriak zaintzea, horien barruan dokumentu elektronikoak sartuz; izan ere, horiek ere izan daitezke egiaztapen eta kontrol jarduketan xede.
- h) Diru laguntzaren gaia den finantzazioaren izaera publikoari behar bezalako publizitatea ematea, betiere udalaren sustapenari dagokionez.
- i) Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua ezarritako kasuei dagokienez, jasotako fondoak itzultzea.

- j) Emakidari darizkion baldintzen ondorioetarako, diru laguntza onartzea. Bestelakorik ezarri ezean, emakidaren jakinarazpena egiten denetik hamabost eguneko gehieneko epean (15) beren beregi uko egiten ez bazaio, diru laguntza onartutzat emango da.
- k) Garatu beharreko jarduera motari aplikatu dakiokeen indarreko arautegi zehatza betetzea.
- l) Udalarekin lankidetzan jardutea eskatzen zaion kasuetan, betiere diru laguntzaren gaiari buruzko beharrezko informazioa emanaz.
- m) Udalak eskatutako ikuskapen jarduketan pean jartzea.
- n) Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal arautegiaren 4.1.2. artikulua ezarritako hizkuntza irizpideak betetzea, betiere diruz lagun daitekeen jarduerari dagozkion komunikazioen hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez. (Gauzak horrela, ikus-entzuleei ezagutarazten zaizkien eta jarduera zabaltzeko lanetan erabiltzen diren euskarri idatzi, iragarki, programa, ohar eta gainerako guztiek ele bietan izan beharko dute. Testuen hizkuntza zuzentasuna bermatzeko asmoz, laguntza eskatu ahal izango zaio udaleko euskara zerbitzuari. Euskararekin zerikusia duten edukiei edo pertsona edo kolektibo onuradunak garatu beharreko helburuen artean hizkuntza hau garatzea agertzen den kasuei dagokienez, testuak euskara hutsean txertatzea onartuko da).
- o) Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea.
- p) **ERANDIOKO UDALAK** ezar ditzakeen bestelakoak, betiere diru laguntzaren erabilera egokia eta diruz lagundutako jardueraren garapen egokia bermatzeko asmoz.

## 8. artikulua.- **ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN BETEBEHARRAK.**

Legeriak edo udalak lankidetzan hitzarmenean eska ditzaketenez gain, erakunde laguntzaileek ezinbestean bete behar izango dituzte honako betebeharrak hauek:

- a) Pertsona edo erakunde onuradunei fondoak ematea, betiere diru laguntza arautzen duten oinarriek eta diru laguntza eman behar duen erakundearekin sinatutako hitzarmenak ezarritako irizpideekin bat etorriz.
- b) Diru laguntza emateko baldintzak edo ezinbesteko beharkizunen betetze maila eta eraginkortasuna egiaztatzea, bai eta jardueraren gauzatze maila

eta diru laguntzaren emakida edo gozamina erabakitzen duen xedearen betetze maila ere.

- c) Jasotako fondoan emakida justifikatzea diru laguntza eman duen organoari eta, hala badagokio, pertsona edo erakunde onuradunek aurkeztutako justifikazioa ere ematea.
- d) Diru laguntza ematen duen organoari fondo horiek kudeatzeko egin ditzakeen egiaztapen jardueren pean jartzea, bai eta kontrol organo eskudunek (nazionalak nahiz batasunekoak izan) finantzak egiaztatze eta kontrolatzeko egin ditzaketen bestelakoan pean ere; horretarako, behar adina informazio eman beharko dute gorago aipatutako egintzak aurrera eramateko.
- e) **ERANDIOKO UDALAK** ezar ditzakeen bestelakoak, betiere diru laguntzaren kudeaketaren garapen egokia bermatzeko asmoz.

## 9. artikulua.- **LANKIDETZA HITZARMENA.**

**ERANDIOKO UDALAK** diru laguntzak erakunde laguntzaile baten bitartez kudeatzen dituen kasuei dagokienez, beharrezko lankidetzaren hitzarmena izenpetu behar izango da; hartara, erakunde laguntzaileak lankidetzaren arrazoa izango diren beharkizun eta jokabide zehatzak bete behar izango ditu. Hori dela eta, hitzarmen horrek jaso beharreko gutxieneko edukia honakoa izango da:

- a) Lankidetzaren xedearen eta erakunde laguntzailearen definizioa: xedea zehaztuko da eta jarduera bakoitza banan-banan definituko da, betiere horien betetze, jarraipen eta kontrol mailaren alde eginez.
- b) Erakunde laguntzaileak kudeatuko dituen diru laguntzen arautegi berezia edo oinarri arau-emaileak identifikatzea.
- c) Lankidetzaren hitzarmenaren iraupen epea; **ezin izango da lau urtetik gorako indarraldia** edukiko duen epea ezarri. Hala ere, luzapenak erabaki daitezke, baina guztira ezin izango dute hasierako hitzarmenaren indarraldia gainditu eta, hortaz, hasierako epearekin batera, **ezin izango dute sei urtetik gorako epea gainditu.**
- d) Diru laguntza ematen duen administrazio organoaren alde ezarri beharreko berme neurriak, eraketa bitartekoak eta ezeztapen prozedura; hala badagokio, azken hori ez dela behar justifikatu beharko da.

- e) Erakunde laguntzaileak diru laguntzak kudeatzeko prozeduraren faseetan bete eta betearazi behar dituen beharkizunak.
- f) Fondo publikoen banaketan lagunduz gero, erakunde laguntzaileari fondoak emateko epea zehaztea, bai eta jasotako fondoak erakunde onuradunei eman arte gordetzeko baldintzak ere.
- g) Fondo publikoen banaketan lagunduz gero, administrazio organoak ematen dituen diru laguntzen onuradunei ezarritako baldintzak.
- h) Onuradunek diru laguntzak emateko baldintzak eta diru laguntza egiaztatze beharkizunak bete direla justifikatzeko era ezartzea.
- i) Onuradunek jasotako diru laguntzen justifikazioa aurkezteko epea eta modua eta, fondo publikoen banaketan lagunduz gero, erakunde laguntzaileak onuradunei fondoak emateko egiaztapenaren epea eta modua ere.
- j) Erakunde laguntzaileak diru laguntzaren justifikazio egokia errazteko eta ezarritako baldintzak bete direla egiaztatze izan beharreko kontabilitate liburu eta erregistroak zehaztea.
- k) Fondoak itzultzeko betebeharra, baldin eta diru laguntza emateko ezarritako baldintzak eta beharkizunak betetzen ez badira.
- l) Erakunde laguntzailearen betebeharra egiaztapen eta kontrol jarduketan pean jartzeko.
- m) Halakorik finkatuz gero, erakunde laguntzailearen aldeko konpentsazio ekonomikoa.

Erakunde laguntzaileen aukeraketari eta aplikatzekoa den araubide juridikoari dagokienez, kontratazio publikoari buruzko printzipio orokorrak hartu behar izango dira kontuan; gauzak horrela, Arlo Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legea jo beharra dago, baldin eta lankidetzan adosten diren baldintzak legean araututako kontraturen baten xedearen barruan badaude. Kasu horretan, gainera, hitzarmenean ezinbestean txertatu behar izango da administrazio kontratuen arautegiak zehazten duena eta beren beregi aipatu behar izango da kontratista legeak erakunde laguntzaileei ezartzen dizkien gainerako betebeharren pean egongo dela.

## HIRUGARREN KAPITULUA:

### DIRU LAGUNTZA EMAN AURRETIKO BETEKIZUNAK

#### 10. artikulua.- OINARRI ARAU-EMAILE ZEHATZAK.

Diru laguntzak emateko aplikagarria den prozedura gorabehera, **ERANDIOKO UDALAREN** diru laguntzak ordenantza honetan ezarritakoaren arabera emango dira betiere. Diru laguntzen ildo berririk agertuz gero, beste erregulazio zehatz bat behar izango da eta hori udalaren osoko bilkurak onetsi behar izango du oinarri arau-emaile zehatzetan; horretarako, bada, Toki Araubideko Oinarriei buruzko Legeak ordenantzak onesteko ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaio eta oinarri horietan honako alderdi hauek txertatuko dira:

- a) Diru laguntzaren gaia definitzea.
- b) Pertsona edo erakunde onuradunek eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileek bete beharreko beharkizunak eta eman beharreko egiaztapen dokumentazioa zehaztea.
- c) Eskabideak aurkezteko modua eta epea.
- d) Diru laguntza emateko prozedura, izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak zehatzuz eta emakidaren proposamena egin behar duen kide anitzeko organoaren osaera finkatuz.
- e) Diru laguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, horien neurketa; hartara, horiek modu egokian aplikatu diren ebaluatze moduan definitu behar dira.
- f) Diru laguntza bakoitzaren kopurua edo zenbateko hori ezartzeko irizpideak.
- g) Pertsona edo erakunde onuradunak edota, hala badagokio, erakunde laguntzaileak diru laguntza emateko xedea bete duela eta jasotako fondoak aplikatu direla justifikatzeko epea eta modua eta, ordenantza honen 18. artikulua ezartzen duen bezala, justifikazioa egiteko dokumentazio balioduna.

- h) Diru laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatu direla-eta ebazpenaren aldarazpena ekar dezaketen zirkunstantziak.
- i) Ebazteko epea (epe hori ezin izango da inola ere sei hilabetetik gorakoa izan), administrazioaren isiltasunaren eraginak, oinarri arau-emaileen kontra bidezkoak diren errekurtsoak eta horiek aurkezteko organoa, bai eta errekurtsook jartzeko epea ere.
- j) Diru laguntzaren moduak eta epeak, eta aldez aurretiko ordainketak eta konturako abonamenduak egiteko aukera, bai eta, hala badagokio, pertsona eta erakunde onuradunek izan beharko duten berme araubidea ere.
- k) Beste diru laguntza eta muga batzuk hartzearekin bateragarriak izatea.
- l) Diruz lagundutako jarduera estaltzeko finantzazio propioa izateko premia, hala badagokio.
- m) Gehiegizko finantzazioa edo ez-betetzea dela eta, jasotako fondoak itzultzeko betebeharra.
- n) Espedientea izapidetzen duen sailak eta **ERANDIOKO UDALAREN** kontu-hartzailetzak beharrezko duten eta eskatzen duten informazio guztia emateko betebeharra onuradunen eta erakunde laguntzaileen aldetik.
- o) Organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen edo arautegi aplikagarriak ezartzen dituen bestelako alderdiak.

## 11. artikulua.- **BEHAR ADINA KREDITU.**

- 1.- Udalak urtero-urtero diru laguntzak emateko aurrekontu partidak zainpetuko ditu, eta bakar-bakarrik eman ahal izango dira behar besteko aurrekontu estaldura egokia duten diru laguntzak. Halaber, zenbait urtetarako diru laguntzak eman ahal izango dira, baldin eta konpromiso kreditu egokirik eta nahikorik badago.

Horretarako, organo eskudunak beharrezko gastua onetsi behar izango du, aplikagarria den legeriarekin, udalaren araudi organikoarekin eta aurrekontua betearazteko oinarriekin bat etorritik; edozein kasutan ere, eduki ekonomikoko egintza administratiboak aldez aurretik fiskalizatu behar izango dira, indarreko legeriak ezarritakoaren arabera.



- 2.- Norgehiagokako sistemaren bitartez eman beharreko diru laguntzei dagokienez, deialdia izango da deialdi horretarako gehienez ezarri ahal izango den aurrekontu kreditua.

## **LAUGARREN KAPITULUA:** **DIRU LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURAK**

### **12. artikulua.- DIRU LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA MOTAK.**

1. **ERANDIOKO UDALAK** diru laguntzak emateko erabiliko duen ohiko prozedura norgehiagokako araubidean izapidetuko da; gauzak horrela, diru laguntzak emango dira aurkeztutako eskabideak erkatuz.

Erkaketa hori oinarri arau-emaileetan eta diru laguntzaren deialdian zehaztutako balorazio irizpideetan oinarrituko da; beraz, irizpideok ez dira liberalitate hutsaren arabera finkatuko besterik gabe. Oinarri arau-emaileek bestelako balorazio irizpideak ezarri ahal izango dituzte.

Adjudikazioa deialdian oinarritutako mugarekin egingo da eskuragarri dagoen kredituaren barruan; hortaz, esleipena irizpide horien arabera baloraziorik handiena lortu duten eskabideei emango zaie.

- 2.- Ondorengo diru laguntzak, hala ere, zuzenean eman ahal izango dira:

- a) **ERANDIOKO UDALAREN** aurrekontu orokorrean izendapen bidez ezarritakoak.
- b) Legezko arau batek ezarritako zenbatekoren bat dutenak edo eman behar direnak.
- c) Salbuespen gisa, herri, gizarte, ekonomi edo giza intereseko arrazoiak egiaztatzen dituzten diru laguntzak edo, behar bezala justifikaturik, deialdi publikoa egitea zail duten bestelakoak ere.

Diru laguntzak zuzenean eman ahal izateko, organo eskudunaren emakida erabakia beharko da edo beharrezko hitzarmena izenpetu behar izango da.

### **13. artikulua.- NORGEHIAGOKAKO PROZEDURA.**

Norgehiagokako prozedurak honako garapen honi jarraituko dio:

- 1.- **PROZEDURAREN HASIERA.**

a). **Deialdia.**

Prozedura ofizioz hasiko da, beharrezko deialdi publikoa onestearekin batera.

Udalaren zerbitzu teknikoek egindako deialdi publikoa organo eskudunak onetsiko du, betiere diru laguntza gorago aipatutako arauen arabera eman ahal izateko.

Deialdiaren gutxieneko edukia honako hauxe izango da:

- Oinarri arau-emaileak ezartzen dituen xedapena eta argitaratu den aldizkari ofiziala zehaztu beharko dira, baldin eta oinarrion berezitasuna dela-eta deialdian bertan txertatzen ez badira.
- Diru laguntzaren aurrekontu kredituak eta kreditu eskuragarrien barruan deitutako diru laguntzen gehieneko zenbatekoa.
- Diru laguntzaren emakidaren gaia, baldintzak eta xedea.
- Diru laguntza emateko araubidea adieraztea.
- Diru laguntza eskatzeko betekizunak eta horiek egiaztatzeko modua.
- Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak adieraztea.
- Eskabideak aurkezteko epea.
- Ebazpen eta jakinarazpen epea.
- Eskaerari erantsi beharreko dokumentu eta informazioak.
- Hala bada gorkio, eskabideak birformulatzeko aukera.
- Ebazpenak administrazio bidea agortzen duen ala ez zehaztea eta, hala ez bada, gora jotzeko errekurtsioa jartzeko organoa.
- Eskabideak baloratzeko irizpideak.
- Jakinarazpen edo argitalpen bideak.

b). **Eskabideen aurkezpena. (I. ERANSKINA)**

Prozedura hasita, interesdunek eskabideak aurkeztuko dituzte deialdian zehaztutako epearen barruan; oinarrietan gutxien-gutxienik honako alderdi hauek agertuko dira:

- Eskatzailearen identifikazioa eta erakundearen ordezkariak egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio. Ildo horri jarraituz, nabarmendu beharra dago pertsona fisikoek NANaren kopia aurkeztu behar izango dutela. Pertsona juridikoek honako agiriak aurkeztu behar izango dituzte:
  - a). IFK.
  - b). Organoak eta ordezkariak izendatzeko erabakia, halakorik egonez gero, erregistro ofizialean behar bezala inskribaturik.
  - c). Estatutuak; horiek ere inskribaturik. Elkarreetako estatutuek Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan inskribaturik egon behar izango dute. Halaber, elkarteen inskripzioa erabakitzen duen ebazpena ere aurkeztuko da.
  - d). Ordezkariaren NANA, betiere, diru laguntzari dagokionez, hala identifikatu ahal izateko.
- Deialdian ezarritakoaren arabera, onuraduna izateko beharrezko beharkizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Eskatzailearen zinpeko adierazpena, onuraduna izateko bateraezintasun arrazoirik ez dagoela adieraziz, betiere Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2. eta 13.3. artikuluen arabera. (II. ERANSKINA)
- Diru laguntza eskuratzea xede duen proiektua deskribatzeko memoria.
- Diruz lagunduko den jardueraren edo proiektuaren kostuaren justifikazio fakturak eta agiriak (diru laguntzaren alde aurretiko ordainketak baimenduz gero, jardueraren aurrekontu zehatz eta desglosatua nahikoa izango da, betiere gastuaren kontzeptua eta finantzazio iturria zehaztuz. (III. ERANSKINA).
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, ordenantza honen 7. artikuluen e) letrak ezarritakoarekin bat etorritik. Udalak berak egiaztatuko du eskatzaileak egunean dituela Erandioko Udal Ogasunarekiko zerga guztiak. (IV. ERANSKINA).

- Hala badagokio, eskatzaileak xede berarako edozein administratziotatik edota erakunde publiko edo pribatutatik (nazionalak edo nazioartekoak) eskuratutako diru laguntzei edo laguntzei buruzko adierazpena. (V. ERANSKINA).
- Diruz lagun daitekeen gastuaren kopurua 30.000 eurotik gorakoa bada obrak burutzeko kostuari dagokionez, edo 12.000 eurotik gorakoa ekipo ondasunen hornikuntzari edo aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresetako zerbitzuen prestazioari dagokionez, onuradunak gutxien-gutxienik aurkeztu behar izango ditu kontratuaren gai bera duten hornitzaile desberdinen hiru eskaintza. Gainera, obrez bezainbatean, eskaintzei obren memoria baloratua edo obra proiektua erantsi behar izango zaie, hala badagokio, teknikari eskudun batek sinatua. Diru laguntzaren eskabidean aurkeztu behar izango diren eskaintzen artean eragingarritasun eta ekonomi irizpideen arabera aukeratuko da; gauzak horrela, memoria batean beren beregi justifikatu behar izango da aukeraketa, baldin eta proposamen ekonomikorik aldekoenari ematen ez bazaio.

## 2.- **IZAPIDETZEA.**

Interesdunak beharrezko eskabidea aurkeztu beharko du ordenantza honen, oinarri zehatzen eta, hala badagokio, deialdi zehatzaren eta legeria orokorraren arabera, eta ondoren egiaztatuko dira eskatzaileak onuradunaren izaera lortzeko beharrezko beharkizunak betetzen dituen ala ez; hartara, hori egin eta gero, diru laguntzen deialdiak izendatutako instrukzio organoak prozedura izapidetuko du eta, ebazpen proposamena arrazoitu behar duten datuak egiaztatzeko beharrezko jarduketa guztiak beteko ditu. Izapidetze jarduketan barruan txostenak eskatu ahal izango dira, eskabideak ebaluatzeko eta horien inguruan ebazteko.

Behin eskabideak ebaluatu eta gero, kide anitzeko organo batek txosten bat argitaratuko du. Oinarri zehatzetan kontraktorik ezartzen ez bada, organo hori beharrezko saileko langile teknikoek osatuko dute eta burua ataleko arduraduna izango da.

Deskribatutako jarduketak egin eta gero, arrazoitutako ebazpen proposamena egingo da eta hori diru laguntza eman behar duen organoari helaraziko zaio.

## 3.- **EBAZPENEA.**

Ebazpen proposamena bidalirik, horren taxuketan eskatzaileak emandako gertaera edo dokumentuak besterik kontuan hartu ez badira, diru laguntza eman behar duen organoak modu arrazoituan ebatziko du emakidari buruz.

Eskatzaileek emandakoez bestaldeko zirkunstantziarik kontuan hartu bada, instrukzio organoak pertsoneri jakinarazi beharko die ebazpen proposamena, alegazioak egiteko hamar eguneko epea ezarriz; horren ondoren, behin betiko ebazpena emango du.

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpenean honako alderdi hauek agertuko dira:

- a) Diru laguntza ematen zaien eskabideak.
- b) Gainerako eskabideen ezeste arrazoitua.
- c) Diru laguntza emateko erabilitako xedapena.
- d) Ordainketa kopurua, modua eta epeak.
- e) Bidezko errekurtsoak, horiek aurkezteko organoak eta horretarako epea.

Edozein kasutan ere, gerta daiteke diru laguntza emateko baldintzak aldatzea edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek norgehiagoka bidez eman ohi dituzten laguntzak edo diru laguntzak lortzea gainfinantzazioa sortuz; halakoetan, horrek berekin ekar dezake emandako ebazpena aldatzea eta, hala badagokio, emandako diru laguntza itzuli behar izatea.

Behin diru laguntzari buruzko ebazpena emanda, pertsona edo erakunde onuradunak horren edukiaren aldarazpena eskatu ahal izango da honako arrazoiak direla eta:

- 1.- Onuraduna izateko beharrezko beharkizunak funtsean aldatu direlako.
- 2.- Diru laguntza arrazoitu duten zirkunstantzia objektiboak aldatu direlako.
- 3.- Diru laguntza eskuratzeko pertsona edo erakunde onuradunek aurkeztutako proiektuak aldatu direlako.

Ebazpena aldatzeko eskabidea jarduera egiteko epea amaitu baino lehenago aurkeztu behar izango da.

#### 4.- **JAKINARAZPENA.**

Ebazpena emanda, pertsona edo erakunde onuradunei jakinarazi beharko zaie Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 58. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

#### 5.- **ARGITALPENA.**

**ERANDIOKO UDALAK** diru laguntzak eman ahal izateko, emakidaren azalpena eman beharko du udaleko iragarki taulan eta *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean* argitaratu beharko du ebazpenaren laburpen bat, eduki osoa jendaurrean zein tokitan dagoen adieraziz; hori guztia udaleko webgunean ere emango da argitara.

Diru laguntza hiruhileko naturalaren hurrengo hilabetean emango da argitara, eta epealdi horretan emandako diru laguntza guztiak aipatuko dira, emateko prozedura eta egituratzeko modua edozein izan direlarik ere; hori horrela izango da, argitaratzea legez salbuetsita duten diru laguntzen kasuan izan ezik.

*Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko* publizitatea ez da beharrezkoa izango honako kasuetan:

- Emandako diru laguntzen zenbatekoak, banan-banan hartuak, **3.000,00 eurotik beherakoak** direnean.
- Diru laguntzaren gaia dela-eta pertsona edo erakunde onuradunaren datuak argitara ematea pertsona fisikoen errespetuaren edo ohore edo intimitate pertsonal eta familiarraren aurkakoa denean.
- Ebazpenaren barruan **3.000,00 eurotik gorako muga** gainditzen duen edo kopuru horretara iristen ez den diru laguntzarik egonez gero, argitalpenean zehaztu behar izango dira, **3.000,00 eurotik** gorako diru laguntzen banan-banako datuez gain, gainerako pertsona edo erakunde onuradunak argitaratuko diren tokia edo hedabidea, betiere diru laguntzaren arautegiaren arabera.

Argitalpenean honakoak agertuko dira:

- a).- Diru laguntzen deialdia eta identifikazioa.
- b).- Horien aurrekontu kreditua eta programa.
- c).- Ea Europar Batasuneko fondoan kargura egindako finantzaziorik dagoen eta, hala badagokio, finantzazioaren kopurua.
- d).- Erakunde onuradunaren izena edo sozietate izena, IFK, diru laguntzaren xedea eta, hala badagokio, diruz lagundutako programak eta proiektuak eta emandako kopurua. Zenbait urtetarako diru laguntzei dagokienez, guztira emandako kopurua eta urterik urte emango den zenbatekoaren banaketa.

**14. artikulua.- ERANDIOKO UDALEKO AURREKONTUAN IZEN BIDEZ EZARRITAKO DIRU LAGUNTZEI DAGOKIENEZ, ZUZENEAN EMATEKOAK DIRENEN PROZEDURA.**

Diru laguntza horien xedea, onuraduna eta aurrekontu zuzkidura udalaren aurrekontuaren gastuen atalean zehaztuko dira beren beregi.

Diru laguntza emateko prozedurak, izendun diru laguntza hauei dagokienez, honako faseak izango ditu:

**1.- HASIERA.**

Prozedura hasiko da interesdunak diru laguntza emateko eta onuraduna izateko egindako eskabidea aurkezten duenean. Eskabideak ezinbestean bete behar izango ditu ordenantza honen 13. artikulua 1. paragrafoaren b) letran ezarritako beharkizunak. Eskabide hori nahitaez aurkeztu behar izango da diru laguntza jasotzen duen aurrekontua **indarrean dagoen ekitaldiko urriaren 31 baino lehenago.**

**2.- EBAZPENA.**

Behin eskatzaileek onuradunak izateko aurkeztutako beharkizunak egiaztatu eta gero, organo eskudunak diru laguntzaren emakidari buruz ebatziko du; horretarako, bere ebazpena arrazoitu behar duten datuak egiaztatzeko behar beste jarduketara eraman ahal izango ditu aurrera.

Emakida prozedura amaituko da emakida erabakiaren bidez edo udalaren eta onuradunaren artean izenpeturiko lankidetzaren bidez; horrek, hala ere, honako hauek jaso behar izango ditu:

- a) Diru laguntzaren gaia eta onuradunak.
- b) Gastuaren kopurua eta aurrekontu kreditua.
- c) Ea bestelako diru laguntzekin bateragarria den ala ez.
- d) Diru laguntza ordaintzeko epeak eta moduak.
- e) Onuradunak diru laguntzaren xedea bete duela eta jasotako fondoak aplikatu dituela justifikatzeko epea eta modua.

Ebazpena gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da, betiere udalean eskabidea aurkeztu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Ez da beharrezkoa diru laguntza mota hauei buruzko publizitatea.

**15. artikulua.- DIRU LAGUNTZA ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA, BETIERE LEGEZKO ARAU BATEK EMAKIDA EDO KOPURUA EZARTZEN DUENEAN.**

Diru laguntza hauen erregulazioa emakida inposatzen duen legezko arauak ezarriko du.

Diru laguntza, bada, emakida erabaki baten bidez emango da edo hitzarmen baten bidez, baldin eta arautegiak horrela ezartzen badu; azken kasu horretan, haren edukia egokitu behar izango zaio aurreko artikulua 2. idatz-zatian diru laguntza izendunen inguruan ezarritakoari.

Publizitateari dagokionez, ordenantza honen 13.5. artikuluan ezarritakoa bete behar izango da. *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean* egin beharreko publizitatea bazter utziko da, legezko arauak diru laguntzaren emakida eta zenbatekoa ezartzen baditu pertsona edo erakunde onuradun zehatz baten alde.

Aplikagarria den arautegiak kontrakorik ezartzen ez badu, diru laguntza mota hauen erregulazio zehatza organo eskudunak onetsi behar izango du, betiere diru laguntza eman ahal izateko.

**16. artikulua.- DIRU LAGUNTZA ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURA, HERRI, GIZARTE, EKONOMI ETA GIZA INTERESEKO ARRAZOIAK EGIAZTATZEN DIREN EDO DEIALDI PUBLIKOA EGITEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN DIRU LAGUNTZEI DAGOKIENEZ.**

**ERANDIOKO UDALAK** diru laguntza mota hauek emateko, herri, gizarte, ekonomi eta gisa intereseko zirkunstantzia bereziak behar izango ditu edo lehia publikoa zailtzen duten bestelakoak; zirkunstantzia horiek guztiak administrazio espediente batean justifikatu behar izango dira, horretarako beren beregi egindako txosten baten bitartez.

Banan-banan aintzat hartuko diren diru laguntza horien gaia, besteak beste, honakoak izango dira:

- Gizakien eraginez sortutako hondamendien edo natur hondamendien ondorioak apaltzea. Onuradunak ukitutako pertsona fisiko edo juridikoak izan dira. Horiek eskatzeko eta emateko beharkizunak organo eskudunaren erabaki baten bidez ezarriko dira.
- Erandioko ondare monumental eta kulturala babestea, neurri handi batean eraikin erlijiosoek osatzen dutela kontuan hartuz. Ondare horien jabeek eskuratu ahal izango dute diru laguntza.

Diru laguntza emateko prozedurari dagokionez, honako garapen hau izango du:

**1.- HASIERA.**

Prozedura interesdunak hala eskatuta hasitako da; horretarako, eskabideak ezinbestean bete behar izango ditu ordenantza honen 13.1.b) artikuluan zehaztutako beharkizunak.

**ERANDIOKO UDALAK** aurkeztutako eskabidea berrikusiko du eta eskatzaileak onuraduna izateko betetzen dituen baldintzak egiaztatuko ditu. Jarraian informazio batzordeari helaraziko dio, beharrezko irizpena eman dezan herri, gizarte, ekonomi eta gisa intereseko zirkunstantzia berezien edo norgehiagokako prozedura zailtzen duten bestelako enbetetze mailari buruz. Hasitako administrazio espedientearen barruan diru laguntzak kudeatzen dituen organo eskudunaren txosten bat txertatuko da, diru laguntzen berezitasuna justifikatuz, hau da, herri, gizarte, ekonomi eta gisa interesa edo deialdi publikoaren zailtasuna justifikatzen duten bestelakoak egiaztatuz.

**2.- EBAZPENA.**

Diru laguntza emateko organo eskudunak emakida erabakiaren eta osteko hitzarmenaren barruan baldintza ekonomikoak (diru laguntzaren kopurua) txertatu behar izango ditu, bai eta onuradunak udalari eskaintzen dizkion kontraprestazioak ere; era berean, berezitasuna justifikatu behar izango du, hau da, deskribatutako arrazoiak agertzen direla edo deialdi publikoa egiteko zailtasunak daudela.

### **3.- JAKINARAZPENA ETA PUBLIZITATEA.**

Ebazpena emanda, pertsona edo erakunde onuradunei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 58. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorritik. Publizitateaz denaz bezainbatean, ordenantza honen 13.5. artikulua ezarritakoa hartu behar da kontuan eta, diru laguntzaren justifikazioari dagokionez, ordenantza honen 18. artikuluan ezarritakoa.

Eskaturiko diru laguntzaren gaia artikulua honetan aipatutakoetariko bat ez bada, behin udalak diru laguntzaren berezitasuna edo deialdi publikoa egiteko zailtasuna ebaluatu eta gero, korporazioaren udalbatza izango da diru laguntzaren gai zehatz eta onuradunaren definizioa onesteko organo eskuduna; halakoetan, artikulua honek araututako emakida prozedura aplikatu ahal izango da.

## **BOSGARREN KAPITULUA:**

### **DIRU LAGUNTZA EMATEKO ERABAKIAREN ONDORENGO** **IZAPIDEAK**

#### **17. artikulua.- GASTU KONPROMISOA ETA DIRU LAGUNTZAREN** **ORDAINKETA**

Diru laguntza emateko ebazpenak berekin dakar gastu konpromisoa; hala eta guztiz ere, dirua ordainduko da aldez aurretik diru laguntzaren gaia bete dela justifikatuta.

Nolanahi ere den, diru laguntza motak hala justifikatzen duenean, **ERANDIOKO UDALAK** deialdian edo emakida erabakian honako salbuespen hau ezarri ahal izango du puntu honi dagokionez:

- a) Kontura egindako ordainketak, hau da, aurkeztutako justifikazioaren kopuru baliokidearen pareko ordainketa zatituak egitea.
- b) Aurretiazko ordainketak, finantzazio iturri gisa.

Hala eta guztiz ere, azken bi kasu horietan behar-beharrezkoa da onuradunak aurrerakin hori eskatzea, garatu beharreko jarduera guztien aurrekontu zehatza aurkeztuta. Edozein modutan ere, justifikazio betebeharrak bere horretan jarraituko du eta konturako ordainketak egiten diren heinean justifikazio agiriak aurkeztuz joan beharko da, betiere konturako ordainketari edo aurretiazko ordainketari buruzko erabakiak zehaztutako epearen barruan.

Kasu horietan ez da inolako bermerik eskatuko. Pertsona edo erakunde onuradunei emandako fondoek sor ditzaketen finantza etekinek ez dute handituko emandako diru laguntzaren kopurua.

Diru laguntzaren ordainketa ez da egingo honako kasuotan:

- a) Onuradunak zerga zorrak egunean ez dituenean.
- b) Gizarte Segurantzarekiko zorrak egonean ez dituenean.
- c) Itzulketa egiteko ebazpena dela-eta zorduna denean.
- d) Aurreko diru laguntzaren bat epearen barruan justifikatzen ez duenean.

## 18. artikulua.- **DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.**

**ERANDIOKO UDALAK** ezarritako baldintzak konplitu direla eta emandako diru laguntzen helburuak lortu direla justifikatzeko zeregina bete behar da **gastuaren justifikazio kontuaren bidez, betiere gastu frogagiriak aurkeztuz**. Era berean, moduluka ere egin ahal izango da edo kontu egoerak aurkeztuz, baldin eta oinarri arau-emaile zehatzetan halaxe ezartzen bada.

Hala eta guztiz ere, hartzailearen egoera jakin bati men eginez emandako diru laguntzei dagokienez, aski izango da egoera hori egiaztatzea zuzenbidean onargarria den bide bat erabiliz, betiere diru laguntza eman aurretik eta hori benetakoa dela egiaztatzeko ezar daitezkeen kontrolei kalterik egin gabe.

### **Gastuaren justifikazio kontua, gastu frogagiriak aurkeztuz:**

Pertsona edo erakunde onuradunak ondorengo justifikazio agiri hauek aurkeztu behar izango ditu:

- 1.- Diru laguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduketa memoria bat, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak sartuz.
- 2.- Diruz lagundua izan den jarduera osoaren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta agiria identifikatuz, bai eta haren kopurua, igorpen data eta, hala badagokio, ordainketa data ere. Diru laguntza aurrekontu baten arabera eman ez gero, izandako desbideraketak adierazi behar izango dira.
- 3.- Diruz lagundua izan den jarduera finantzatu duten bestelako sarrerei edo diru laguntzei buruzko zerrenda zehatza, horien kopurua eta jatorria adieraziz.
- 4.- Diru Laguntzei buruzko Legearen 31.3. artikuluaaren arabera, pertsona edo erakunde onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.
- 5.- Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, baldin eta aplikatua izan ez den gerakinik edo handik sortutako interesik badago.
- 6.- Merkataritza trafiko juridikoan froga balioa edo administrazio eraginkortasuna duten fakturak edo agiriak 2. idatz-zatian aipatutako zerrendan txertatu behar izango dira. Jatorrizkoak edo kopia erkatuak izango dira eta legez eginda egon behar dute diru laguntzaren pertsona edo erakundearen izenean eta, edozein kasutan ere, zerikusia izango dute

egindako jarduerekin, harik eta **ERANDIOKO UDALAK** emandako diru laguntzaren kopuru baliokidera iritsi arte. Emandako diru laguntzatik diruz lagundua izan zen proiektuaren zenbatekora arte sobran dagoen kopurua dela eta, fakturen fotokopia aurkeztu behar izango da. Ondorio horietarako, indarreko legeriaren arabera, fakturek gutxieneko edukia izan beharko dute:

- a) Faktura zenbakia eta, hala badagokio, seriea.
- b) Igorpen data.
- c) Faktura egin duen enpresaburuaren edo enpresaren datuak:
  - Izen-abizenak edo sozietate izena.
  - IFZ edo IFK.
  - Helbidea, posta kodea, udalerrria eta lurraldea.
- d) Faktura ordaintzen duen pertsona edo erakunde hartzailearen datuak:
  - Izen-abizenak edo sozietate izena.
  - IFZ edo IFK.
  - Helbidea, posta kodea, udalerrria eta lurraldea.
- e) Eragiketaren deskripzioa.
- f) Hala badagokio, aplikagarria den BEZ tasa eta BEZaren oinarri eta kuotaren arteko desglosea edo salbuespenaren justifikazioa, hala denean.
- g) Eragiketa egin zeneko data, baldin eta faktura igorpenaren datarekin bat ez badator.
- h) Faktura ematen duenaren sinadura edo zigilua.
- i) Faktura ordaindu dela adieraztea.

Faktura egiteko betebeharra bete daiteke 1496/2003 Errege Dekretuak onetsitako Fakturazioari buruzko Araudiaren 4. artikuluan deskribatutako eragiketetako txartel bat emanez, betiere kopurua 3.000 eurotik gorakoa ez denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

- 7.- Langileen gastuak sartzen dituzten diru laguntzei dagokienez, beharrezko nominak edo soldata agiriak erantsi behar izango dira; horietan argi eta garbi jaso behar izango dira honako datu hauek: izen-abizenak, NANA, hilabetea, kopuru gordina, egin diren deskontuak, kopuru likidoa eta Gizarte Segurantzaren kotizazio buletinak. Buletin berean diru laguntzaren xedea izan diren langileak eta beste xede baterako langileak agertzen badira, ukitutako langileei dagozkien kopurua zehaztu behar izango da buletinaren atzealdean, enpresaren kuota eta langileena adieraziz. Gastuen ordainketa eskatzen denean, nominen ordainagiria, Gizarte Segurantzaren kotizazioena eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagozkion kopuruen sarrerenak erantsi behar izango dira.
- 8.- Dieta, lekualdaketa eta alojamenduei dagokienez, ez dira diruz lagunduko ez dietak, ez lekualdaketak, ez alojamenduak, betiere PFEZari buruzko arautegiak finkatutako kategoria baliokiderako salbuespen gisa finkatuetatik gora. Gastu horiek justifikatu behar izango dira arduradunak sinatutako beharrezko erreziboak, agiriak edo fakturak aurkeztuz, betiere jasotako dieten kopuruan; agiri guztietan argi eta garbi agertuko dira hartzailearen izen-abizenak eta kontzeptua.
- 9.- Beste alde batetik, errentamendu kontratuei dagokienez, errentamendu kontratuaren kopia erkatua aurkeztu behar izango da, bai eta kontzeptu hori dela-eta sortutako kopuruen ordainagiriak ere.

Aurkeztutako jatorrizko ordainagiriak estanpatxo batez markatuko dira, horretan zein diru laguntza justifikatzeko erabili diren zehaztuz eta ea diru laguntzaren ziurtagiriaren kopurua diru laguntzari osorik edo zatiz lotzen zaion adieraziz; azken kasu horretan, gainera, diru laguntzak ukitutako kopuru zehatza adierazi behar izango da.

Diru laguntza egiaztatzeko organo eskudunak onuradunen justifikazioan konpon daitezkeen akatsak ikusiz gero, horrelaxe jakinaraziko dio eta hamar eguneko epea emango dio zuzendu ahal izateko.

## **19. artikulua.- JUSTIFIKAZIO EPEA HANDITZEA.**

- 1.- Oinarri arau-emaelek kontrakoa ezartzen ez badute, diru laguntza ematen duen organoak justifikazioa aurkezteko ezarritako epea handitu ahal izango du, hasierako epearen erditik gorakoa izango ez dena, baldin eta horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

- 2.- Epea zabaltzeko prozedura ofizioz hasi ahal izango da edo alderdi onuradunak hala eskatuta. Justifikazioa handitzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar izango zaie eta ezin izango zaio errekurtsorik jarri.
- 3.- Epeak gehienez baimendutako denboran handitu ahal izango dira honako kasu hauetan:
  - Kontsularen bulegoen bitartez edo atzerrian izapidetutako prozedurak.
  - Erandion izapidetu bai baina atzerrian izapideren bat behar dutenak, edo Espainiatik kanpo bizi diren interesdunek parte hartzen dutenean.
- 4.- Epea handitzeko eskabide eta erabakia epearen mugaeguna izan baino lehenago aurkeztu behar izango da.
- 5.- Zabaltze epea igaro eta gero, diru laguntza ematen duen organoak onuradunari eskatuko dio 15 egun balioduneko epean justifikazioa aurkezteko. Justifikazioa epe horren barruan aurkeztu ezean, jasotako diru kopuruak itzuli behar izango dira eta horrek, gainera, ordenantza honek eta Diru Laguntzei buruzko Legeak ezarritako bestelako erantzukizunak ekarriko ditu.

## SEIGARREN KAPITULUA:

# DIRU LAGUNTZEN ITZULKETAK

### 20. artikulua.- ITZULKETA KASUAK.

Diru laguntzen emakida Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 62. eta 63. artikuluek jasotako baliogabetasun edo deuseztagarritasun akatsetariko batean sartzen den kasuak gorabehera, jasotako kopuruak itzuli eta legezko berandutza interesa eskatu ahal izango da honako kasu hauetan:

- a) Diru laguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru laguntza ematen utziko ez luketen baldintzak ezkutatzuz.
- b) Diru laguntzaren emakida arrazoitzen duten xedea, jarduera, proiektua edo jokabidea zatiz edo osorik bete ez izana. Ez-betetzea zatizkoa bada eta betetze osotik hurbil badago, itzuli beharreko diru kopurua ez-betetzearen neurrikoa izango da.
- c) Diru laguntzaren erregulazio arauetan ezarritakoaren arabera, justifikazio betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez betetzea.
- d) Finantza egiaztapen eta kontrol jardueri aurre egitea, alde batera uztea, oztopatzea edo uko egitea eta kontu betebeharrak edo agiriak gordetzeko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada fondoei emandako erabilera egiaztatu, ezin bada diruz lagundutako jardueren xedea, errealitatea eta maiztasuna ziurtatu edo ezin bada frogatu ea administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik (nazio mailakoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak) xede berarako emandako diru laguntzen, laguntzen, sarreren edo baliabideen konkurrentzia egon den ala ez.
- e) Gehiegizko finantzazioa benetako kostuaren aldean; gehiegizko zati hori, beraz, itzuli behar izango da.
- f) Pertsona edo erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea edo diru laguntza ematean hartutako konpromisoak ez konplitzea, baldin eta diru laguntzaren emakida arrazoitzen duten helburuak lortzeko,

jarduera egiteko, proiektua gauzatzeko edota izan beharreko jokabidea hartzeko moduari eta epeari eragiten badiete.

- g) Erregulazio arautegian ezarritako gainerako kasuak.

## 21. artikulua.- **ITZULKETA ESPEDIENTEA.**

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko sarrera izaera dauka; horrek berekin dakar Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua aplikagarria izatea, bai eta **ERANDIOKO UDALAREN** kudeaketa, diru bilketa eta ikuskapenari buruzko ordenantza ere.

Edozein kasutan ere, prozedura izapidetzean onuradunak entzuna izateko daukan eskubidea bermatuko da, bai eta bere jarduketa defendatzeko bidezko alegazioak egiteko eskubidea ere.

Itzulketa eskatzen duen ebazpena diru laguntza eman zuen organo berberak emango du; horretarako, eskaera horren justifikazioa egingo du eta itzuli beharreko kopurua zehaztuko du, bai eta sarrerarako borondatezko epea ere. Halaber, ohartaraziko du, itzulketa epe horren barruan egin ezean, premiamendu bideari ekingo zaiola.

## **ZAZPIGARREN KAPITULUA:**

# **DIRU LAGUNTZEN KONTROL ARAUBIDEA**

### **22. artikulua.- KLOMPETENCIA Y FINALIDAD DEL CONTROL.**

- 1.- **ERANDIOKO UDALAK** udal kontu-hartzailetzaren bidez emango dituen diru laguntzen finantzak kontrolatzeko eta ikuskatzeko zeregina beteko du, betiere Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagozkion eginkizunei kalterik egin gabe.
- 2.- Ordenantza honetan ezarritako erregulazioarekin bat etorritik, ikuskapen zereginen xedea da udalak emandako diru laguntzak kontrolatzea, indarreko legeria bete dela egiaztatzeko. Helburu hori betetzeko, honako hauek egingo dira nagusiki:
  - Diru laguntza emateko agiria edo espedientea ikuskatuko da alde zurretik.
  - Ordainketa agindua formalki ikuskatuko da.
  - Ordainketa egin dela ikuskatuko da.
  - Emandako diruaren aplikazioa edo erabilera ikuskatuko da.
- 3.- Finantza kontrolaren xedea da honakoak egiaztatzea:
  - Onuradunak diru laguntza modu zuzen eta egokian jaso duela.
  - Pertsona edo erakunde onuradunek eta erakunde laguntzaileek diru laguntza kudeatzean eta aplikatzean beren betebeharrak betetzen dituztela.
  - Pertsona edo erakunde onuradunek eta erakunde laguntzaileek diru laguntza modu zuzen eta egokian justifikatzen dutela.

- Pertsona edo erakunde onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako justifikazioarekin bat etorriz, diru laguntzarekin finantzatuak izan diren eragiketen errealitatea eta maiztasuna.
- Diruz lagundutako jardueren finantzazio egoki eta zuzena.
- Pertsona edo erakunde onuradunek eta erakunde laguntzaileek Administrazioari aitortu ez dizkioten gertaerak, zirkunstantziak edo egoerak, diruz lagundutako jardueren finantzazioari eragin diezaioketenak, bai eta diru laguntzaren lorpen, erabilera, gozamen edo justifikazio zuzen eta egokiari eta horrekin finantzatutako eragiketen errealitateari eta maiztasunari ere.

### **23. artikulua.- FINANTZA KONTROLERAKO PROZEDURA.**

**ERANDIOKO UDALAK** finantza kontrola egikarrituko du auditorien bidez edo bestelako kontrol tekniken bidez, betiere Herri Administrazioarako auditoretza arauak ezarritakoarekin bat etorriz.

Jarduketei hasiera emateko, beharrezko jakinarazpena igorriko zaie pertsona edo erakunde onuradunei eta erakunde laguntzaileei, haiei buruzko alderdi guztien berri emanez. Pertsona edo erakunde onuradunen eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileen gaineko finantza kontrolerako jarduketek gehienez ere hamabi hilabeteko epean amaitu behar izango dute, betiere horiek hasiko zirela bidalitako jakinarazpenaren datatik zenbatzen hasita.

Pertsona edo erakunde onuradunen eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileen gaineko finantza kontrolerako jarduketak amaituko dira agerian jarritako gertaeren inguruko txostenak eginez eta handik eratorritako ondorioak atereaz. Lehenengo eta behin, pertsona edo erakunde onuradunei eta erakunde laguntzaileei behin-behineko txosten bat igorriko zaie, hamabost eguneko epean alegazioak egiteko aukera izan dezaten. Horren ondoren, behin betiko txosten bat bidaliko zaio diru laguntza eman zuen organoari; gauzak horrela, kontu-hartzaileak egindako txostenak diru laguntza osoa edo horren zati bat itzultzeko bidezotasuna jasotzen badu, organo kudeatzaileak erabaki behar izango du, txosten horretan oinarrituz eta hilabeteko epean, itzulketa espedienteari hasiera ematea.

### **24. artikulua.- DIRU LAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA.**



Diru laguntzaren pertsona edo erakunde onuradunak justifikazioan azaltzen duenean diru laguntza emateko aintzat hartutako baldintzetan aldaketak izan direla eta horiek diru laguntzaren izaera eta helburuak ez dituztela funtsean aldatu —nahiz eta ebazpenaren aldaketa ekar zezaketen—, diru laguntza eman duen organoak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, onespeneren alde aurretiko administrazio baimenaren izapidea bazter utzita ere, baldin eta onarpen horrek hirugarren pertsonen eskubideei kalterik ez badakarkie.

## **ZORTZIGARREN KAPITULUA:**

# **ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

### **25. artikulua.- ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.**

Arau hausteei eta zigorrei dagokienez, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluaren (52. artikulua eta hurrengoak) eta gai hau arautzen duen gainerako legerian ezarritakoari lotu behar izango zaio.

### **26. artikulua.- PROZEDURA.**

Diru laguntzen inguruko zigorrak administrazio espediente baten bitartez ezarriko dira; espedienteak Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigor Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak, haren garapen arauak eta Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. tituluaren II. kapituluak ezarritakoaren arabera izapidetuko da eta, edozein kasutan ere, horren barruan interesdunari entzunaldia emango zaio, betiere beharrezko erabakia eman baino lehenago.

Nolanahi ere den, kobratzeko aintzat hartu beharra dago zuzenbide publikoko sarreratzat hartzen dela; horrek berekin dakar aplikagarriak izatea Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua eta **ERANDIOKO UDALAREN** kudeaketari, diru bilketari eta ikuskapenari buruzko udal ordenantza.

Prozedura ofizioz hasiko da, udalaren alkatetzak bideratua, Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 n) artikulua ezarritakoari jarraituz (eskumena eskuordetzen ez bada), betiere diru laguntza ematen duen organoak edo erakunde laguntzaileak garatutako egiaztapen jardueraren ondorioz, bai eta legerian ezarritako finantza kontrolerako jarduketan ondorioz ere.

Zigorrak ezartzeko erabakiek administrazio bidea agortuko dute.

## II. TITULUA

### ONGIZATE, KULTURA, KIROL, HEZKUNTZA ETA EUSKARARI BURUZKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN XEDAPENAK

#### LEHENENGO KAPITULUA: ONGIZATEARI BURUZKO DIRU LAGUNTZAK

#### SEKZIO BAKARRA

#### GIZARTE INTERESEKO EKIMENAK ETA JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZAK

#### 27. artikulua.- DIRU LAGUNTZAREN GAIA.

- 1.- Diru laguntzen gaia da gizarte intereseko ekimen eta jarduerak finantzatzea, betiere honako helburu hauek lortzeari begira:
  - Bazterturik edota bazterketa arriskuan dauden gizarte kolektiboak prebenitzeko, artatzeko, sustatzeko eta gizarteratzerako asmoz, elkarrekin antolatzen dituzten jardueren gastuak ordaintzea.
  - Azterlanak eta ikerlanak egitea.
  - Zabalkunde proiektuak eta herritarrek kontzientziaztekoak.

Arestian aipatutako proiektuak oro har herritarrei zuzendu ahal izango zaizkie edo sektore zehatzei (haurrak, familiak, emakumezkoa, pobrezia, hirugarren adina, elbarritasunak, elbarritasun gaixotasunek ukitutako pertsonak, drogamenpekotasunak, etorkinak eta abar).

- 2.- Diru laguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz. Era berean, diru laguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste batzuekin bateratu ahal izango da.

## 28. artikulua.- **ERAKUNDE ONURADUNAK.**

- 1.- Erakunde onuraduntzat hartuko dira aurreko puntuan deskribatutako jarduera sustatzen edo aurrera eramaten duten pertsona fisiko edo juridikoak, horien barruan nortasun juridiko propiorik ez dutenak sartuz; era berean, aurrekoez gain, onuraduntzat hartuko dira, ordenantza honen I. tituluaren araberako irizpideak aintzat hartuz, udalerrarentzat interesgarriak diren gizarte izaerako jarduerak egiten dituztenak, hau da, **ERANDIOKO UDALAK** arlo horretan aurrera eramaten dituenak osatzen dituzten jarduerak.
- 2.- Ordenantza honetan ezarritako beharkizunez gain, erakunde onuradunek honako hauek ere bete behar izango dituzte:
- Irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, legez osatuak eta beharrezko erregistroan inskribatuak, Bizkaiko lurralde historikoko egoitzarekin eta euren jarduerak udalerrian burutuko dituztenak. Edozein kasutan ere, Gizarte Segurantzarekiko zorrak eta zerga zorrak ordainduta dituztelako ziurtagiriak aurkeztu behar izango dituzte.
  - Ordezkaritza partikularreko edo taldeko ordezkartzako pertsona fisikoak izatea, noizean behingo ekimena dutenak, irabazi-asmorik gabekoak eta udalerrian erroldatuak.

## 29. artikulua.- **BALORAZIO IRIZPIDEAK.**

- 1.- Puntuen balioa aurrekontuan zainpetutako kopuru osoari dagokiona izango da zati ehun.

- a) Erakundearen programak iristen diren erandiotarren kopurua, sexuaren arabera ..... **gehienez ere 25 puntu.**
- b) Beste erakunde batzuen finantzazio baliabideetara jotzeko zailtasuna ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- c) Erakunde eskatzaileak Erandioko proiekturako dituen baliabide ekonomikoak (bazkideen ekarkinak eta programaren arabera ordaindutako kopuruak). Hori guztia zinpeko adierazpen baten bitartez egiaztatu behar izango da ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- d) Udalerrian garatu beharreko programa edo jardueren kopuru eta edukia ..... **gehienez ere 25 puntu.**
- e) Udalerrian garatu beharreko jardueren kostua ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- f) Jardueren artean daukaten lehentasuna ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- g) Jarduerak daukan eragina, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzeko ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- h) Jarduera bi hizkuntza ofizialak erabiliz garatzea ..... **gehienez ere 5 puntu.**

2.- Irizpideak banan-banan baloratuko dira; lan hori beharrezko atal edo sailak eramango du aurrera eta egokitzat jotzen dituen pertsonen edo erakundeen aholkularitza eskatu ahal izango du betiere.

**30. artikulua.- EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA**

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpena behar bezala arrazoituta jakinaraziko zaie erakunde onuradunei gehienez ere **lau hilabeteko epean**, berori eskatu zenetik zenbatzen hasita.

**31. artikulua.- JUSTIFIKAZIO EPEA.**

Erakunde onuradunek justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko **bi hilabeteko epea** izango dute, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita; hori hala izango da, deialdian bestelako eperik ezartzen ez baldin bada.

## **BIGARREN KAPITULUA:** **KULTURARI BURUZKO DIRU LAGUNTZAK**

### **LEHENENGO SEKZIOA**

## **KULTUR EKIMEN ETA JARDUERAK FINANTZATZEKO** **DIRU LAGUNTZAK**

### **32. artikulua.- DIRU LAGUNTZAREN GAIA.**

- 1.- Diru laguntza honen gaia da elkarteek edo bestelako erakundeek kultur jardueren antolaketara bideratzekoak diren ekimenen finantzatzea, urteko jardueraren ekintza eta jarduketak finantzatuz, hau da, ekitaldi barruan erakunde eskatzailearen ohiko jardunbidearen programaren zati diren jarduketak eta bestelako kultur proiektuak, bereziki berritzaileak direnak.
- 2.- Estatutuen arabera, erakunde eskatzaileek ezin izango dute inor diskriminatu sexua, arraza edo erlijioa dela eta, ez onarpen prozesuan ez jardunbidean. Gainera, erakundeek Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete behar izango dute.

### **33. artikulua.- ERAKUNDE ONURADUNAK.**

- 1.- Onuraduntzat hartuko dira aurreko puntuan deskribatutako jarduera sustatzen edo aurrera eramaten duten pertsona fisiko edo juridikoak, horien barruan nortasun juridiko propiorik ez dutenak sartuz.
- 2.- Ordenantza honetan ezarritako beharkizunez gain, erakunde onuradunek honako hauek ere bete behar izango dituzte:
  - Irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, legez osatuak eta Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan eta Erandioko Elkartearen Udal

Erregistroan inskribatuak, Erandioko sozietate egoitzarekin eta euren jarduerak udalerrian burutuko dituztenak.

- Ordezkaritza partikularreko edo taldeko ordezkartzako pertsona fisikoak, noizean behingo ekimena dutenak, irabazi-asmorik gabekoak eta udalerrian erroldatuak. Jarduerak edo proiektuak Erandion egin behar izango dira edo Erandioko udalerraren izenean edo Erandioko biztanleen onuraz.

### 34. artikulua.- **BALORAZIO IRIZPIDEAK.**

Balorazio irizpideak honako hauek izango dira:

- a) Tradizioa: elkartea sortu zen urtea: .... **gehienez ere 4 puntu.**
- ▶ Urte 1etik 5 urtera arteko puntu 1. antzintasuna .....
  - ▶ 6 urtetik gora eta 10 urtera arteko antzintasuna ..... 2 puntu.
  - ▶ 11 urtetik 15 urtera arteko 3 puntu. antzintasuna .....
  - ▶ 16 urtetik gorako antzintasuna ..... 4 puntu.
- b) Erakunde eskatzaileak proposatzen dituen kultur jardueren edo proiektuen jarraitasuna: ..... **gehienez ere 4 puntu.**
- ▶ 1etik 5 ediziora bitartean puntu 1. ....
  - ▶ 6 ediziotik gora eta 10 ediziora arte 2 puntu. ....
  - ▶ 11 ediziotik 15era arte ..... 3 puntu.
  - ▶ 16 ediziotik gora ..... 4 puntu.
- c) Elkarteko pertsona kopurua: ..... **gehienez ere 3 puntu.**

- ▶ 50 pertsonara arte ..... puntu 1.
- ▶ 50etik 100 pertsona artean ..... 2 puntu.
- ▶ 100 pertsonatik gora ..... 3 puntu.

d) Bideragarritasun ekonomikoa: elkartearen finantzazioa eta udaletik kanpoko finantzazio iturriak: .....

**gehienez ere 6 puntu.**

- ▶ Bazkideen kuotengatiko autofinantzazioa ..... 2 puntu.
- ▶ Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzak jasotzea ..... puntu 1.
- ▶ Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak jasotzea ..... puntu 1.
- ▶ Laguntza pribatuak (babesleak, laguntzaileak...)..... 2 puntu.

e) Emakumezkoen partaidetza eta berdintasuna sustatzea: .....

**gehienez ere 4 puntu.**

- ▶ Emakumezkoen presentzia zuzendaritzan..... 2 puntu.
- ▶ Emakumezkoen presentzia bazkide gisa, kopurua %25etik gorakoa denean..... 2 puntu.

f) Erakundeak elkarteen edo udalaren beste programa edo egitasmo batzuekin lankidetzan jardutea: .....

**gehienez ere 14 puntu.**

- ▶ Jai batzordearekin lankidetzan jardutea ..... 5 puntu.
- ▶ Beste kultur erakunde batzuekin lankidetzan jardutea ..... 3 puntu.
- ▶ Bestelako kirol erakunde batzuekin lankidetzan jardutea ..... 3 puntu.
- ▶ Udal programekin lankidetzan jardutea ..... 3 puntu.

- g) Elkartea udalerrriaren kanpoaldean kokaturik egotea ..... gehienez ere 3 puntu.**
- ▶ Egoitza Altzagan edo Astrabuduan puntu 1. egotea .....
  - ▶ Egoitza Erandio Goikoan egotea ..... 2 puntu.
  - ▶ Egoitza beste auzo batzuetan egotea 3 puntu.
- h) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera, honako baremoaren arabera ..... gehienez ere 10 puntu.**
- ▶ Bi hizkuntzen erabilera berdina edo euskararen lehentasunezko erabilera..... 5 puntu.
  - ▶ Euskararen erabilera hutsa ..... 10 puntu.
- i) Erandio udalerrri gisa sustatzea ..... gehienez ere 5 puntu.**
- ▶ Bi auzotan presentzia izatea ..... 3 puntu.
  - ▶ Hiru auzotan presentzia izatea ..... 4 puntu.
  - ▶ Hiru auzotan baino gehiagotan presentzia izatea ..... 5 puntu.
- j) Programaren gizarte eta kultur interesa ..... gehienez ere 37 puntu.**
- ▶ Udalerriko kultur premiei erantzutea ..... 13 puntu.
  - ▶ Jardueraren eragina udalerrriaren irudian ..... 5 puntu.
  - ▶ Pertsona hartzaileen edo partaideen kopurua ..... 5 puntu.
  - ▶ Elementu berritzaileak ..... 4 puntu.
  - ▶ Euskal kulturaren sustapena ..... 5 puntu.
  - ▶ Antolakuntza, egitura eta ekonomi ahaleginak ..... 5 puntu.
- k) Proiektuaren kalitate teknikoa ..... gehienez ere 10 puntu.**

Gizarte eta kultur arloko proiektu bat egitea honako metodologia honi jarraituz:

- ▶ Justifikazioa. Proiektua egitea azaltzen duten arrazoiak.
- ▶ Eskuratu nahi diren helburuak.
- ▶ Garatu beharreko jarduerak.
- ▶ Hartzaileak.
- ▶ Beharrezko ekonomi, teknika eta giza baliabideak.
- ▶ Ebaluazioa.

### **Dokumentazio gehigarria:**

Diru laguntza eskatzen den urterako jardueren proiektuarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar izango da:

- Erakundearen bazkide kopuruari buruzko egiaztagiria, horietatik Erandion zenbat dauden erroldatuta adieraziz, eta zuzendaritzaren egiaztagiria.
- Elkartea sortu zen urtea.
- Garatutako proiektu bakoitzaren edizio kopurua.
- Erakunde eskatzaileak jarduerak garatzen dituzten auzoak.
- Erakundeak lankidetzan jarduten duen beste erakunde batzuek garatutako jarduerak edo udal programa.
- Elkartea finantzatzeko moduak adieraztea: bestelako laguntza pribatuak edo udalaz gaindiko diru laguntzak.
- Eskuko kartelak eta programak urtean zehar egindakoak.

### **35. artikulua.- EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA.**

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpena erakunde onuradunei jakinaraziko zaie behar bezala arrazoituta eta gehienez ere lau hilabeteko epean, betiere diru laguntza eskatu zenetik zenbatzen hasita.

### **36. artikulua.- DIRU LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA.**

Erakunde onuradunek justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko **bi hilabeteko epea** izango dute, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita; hori hala izango da, deialdian bestelako eperik zehazten ez bada, baina edozein kasutan ere **hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehenago** aurkeztu behar izango da.

## BIGARREN SEKZIOA

### **UDALERRIKO IKASTETXEEK ETA ELKARTEEK** **EUSKARA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK**

#### **37. artikulua.- DIRU LAGUNTZAREN GAIA.**

- 1.- Diru laguntza honen gaia da elkarteek, erakundeek edota udalerriko ikastetxeek euskara sustatzeko jarduerak antolatzea bideratutako ekimenak finantzatzea, betiere Eusko Jaurlaritzak onetsitako Euskara Biziberritzeko Plangintza Nagusian ezarritako helburu estrategikoetan oinarrituz.
- 2.- Diru laguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz. Era berean, diru laguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste batzuekin bateratu ahal izango da.

#### **38. artikulua.- ERAKUNDE ONURADUNAK.**

- 1.- Erakunde onuraduntzat hartuko dira aurreko puntuan deskribatutako jarduera sustatzen edo aurrera eramaten duten pertsona fisiko edo juridikoak, horien barruan nortasun juridiko propioa ez dutenak sartuz.
- 2.- Ordenantza honetan ezarritako beharkizunez gain, erakunde onuradunek honako hauek ere bete behar izango dituzte:
  - Irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, legez osatuak eta beharrezko erregistroan inskribatuak, eta bere jarduerak udalerrian garatzea.
  - Ordezkaritza partikularreko edo taldeko ordezkaritzako pertsona fisikoak izatea, noizean behingo ekimena dutenak, irabazi-asmorik gabekoak eta udalerrian erroldatuak.

- Honako jarduera hauek garatzen dituzten ikastetxeak edo institutuak: gizarte eta hezkuntza jarduerak edo jardura zibikoak edo euskara bultzatzea edo normalizatzea helburu duten jarduerak, baldin eta azken horiek Erandioko EBPNren helburuekin bat badatoz, betiere irakaskuntza arloko jarduerak baztertuz.
- 3.- Edozein kasutan ere, udalerriko ikastetxeak beharturik egongo dira Gizarte Segurantzaren ordainketa eta zerga zorren ordainketa egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztera, betiere ordenantza honen 7. artikulua ezarritakoa bazter utzita.

### 39. artikulua.- **BALORAZIO IRIZPIDEAK.**

Balorazio irizpideak honakoak izango dira:

- |  |                               |
|--|-------------------------------|
| a) Proposamena egin duen pertsonak edo erakundeak Erandioko udalerraren ingurunean duen esanahia edo sustraitzea .....                                     | <b>gehienez ere 15 puntu.</b> |
| b) Eskatzaileak urteetan garatutako jardueraren jarraitasuna .....   | <b>gehienez ere 15 puntu.</b> |
| c) Beste erakunde batzuen finantzabideak eskuratzeko zailtasuna .....  | <b>gehienez ere 5 puntu.</b>  |
| d) Erakundeak dituen bitarteko ekonomikoak .....   | <b>gehienez ere 5 puntu.</b>  |
| e) Proiektua Erandion onetsitako Euskara Biziberritzeko Plangintza Nagusiaren helburuetara egokitzea, besteak beste, ondoko alderdi hauek baloratuz: ..... | <b>gehienez ere 30 puntu.</b> |
- ▶ Haur edo gazteei zuzendutako ekintzak.
  - ▶ Herritarrei zuzendutako ekintzak.
  - ▶ Jarduketa eremua: irakaskuntza, familia, kultura, kirola eta aisialdia oro har.
  - ▶ Ahozkotasuna sendotzeko helburua duten ekintzak.

- f) Jardueraren iraupena eta maiztasuna ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- g) Proiektua originala edo berritzailea izatea ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- h) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera, honako baremoaren arabera ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- ▶ Bi hizkuntzen erabilera berdina edo euskararen lehentasunezko erabilera..... 5 puntu.
  - ▶ Euskararen erabilera hutsa ..... 10 puntu.
- i) Jarduerak gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasuna sutatzeko lanean duen eragina ..... **gehienez ere 5 puntu.**

**40. artikulua.- EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA.**

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpena erakunde onuradunei jakinaraziko zaie behar bezala arrazoituta eta gehienez ere lau hilabeteko epean, betiere diru laguntza eskatu zenetik zenbatzen hasita.

**41. artikulua.- DIRU LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA.**

Erakunde onuradunek justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko **bi hilabeteko epea** izango dute, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita; hori hala izango da, deialdian bestelako eperik zehazten ez bada.

## HIRUGARREN SEKZIOA

### **UDALERRIKO IKASTETXE PUBLIKO ETA PRIBATUETAN GARATUTAKO ESKOLA JARDUERARAKO DIRU LAGUNTZAK**

#### **42. artikulua.- DIRU LAGUNTZAREN GAIA.**

- 1.- Diru laguntza honen gaia da ikastetxeek udalerrri barruan gizarte eta hezkuntza jarduerak edo jarduera zibikoak antolatzen zuzendutako ekimenak finantzatzea.
- 2.- Diru laguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz. Era berean, diru laguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste batzuekin bateratu ahal izango da.

#### **43. artikulua.- ERAKUNDE ONURADUNAK.**

Onuradun izango dira gizarte-hezkuntzako jarduerak garatzen dituzten irakaskuntza zentroak, ikastetxeetako guraso elkarteak eta hezkuntzaren alorrean jarduerak garatzen dituzten bestelako elkarteak. Onuradunentzat ezinbesteko baldintza da Gizarte Segurantzako ordainketetan eta betekizun fiskaletan eguneratuta daudela erakusten duten ziurtagiriak aurkeztea, Ordenantza honetako 7. artikuluan ezarritakoa salbuespen izanda.

#### **44. artikulua.- BALORAZIO IRIZPIDEAK.**

Balorazio irizpideak honakoak izango dira:

- a) Proposamena egin duen pertsonak edo erakundeak Erandioko udalerraren ingurunean duen esanahia edo sustraitzea ..... **gehienez ere 15 puntu.**
- b) Eskatzaileak urteetan garatutako jardueraren jarraitasuna ..... **gehienez ere 15 puntu.**
- c) Beste erakunde batzuen finantzabideak eskuratzeko zailtasuna ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- d) Erakundeak dituen bitarteko ekonomikoak ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- e) Jarduera mota, lehentasunen hurrenkera honen arabera: ..... **gehienez ere 25 puntu.**
- ▶ Zehatza: toki horretako ezaugarriak garatzen dituena (hizkuntza, toponimia ...).
  - ▶ Teknologia berrien erabilera.
  - ▶ Haurrei zuzendutakoak.
  - ▶ Gazteei zuzendutakoak.
  - ▶ Herritarrei oro har zuzendutakoak.
- f) Jardueraren iraupena eta maiztasuna ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- g) Proiektua originala edo berritzailea izatea ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- h) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera, honako baremoaren arabera ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- ▶ Bi hizkuntzen erabilera berdina edo euskararen lehentasunezko erabilera..... 5 puntu.
  - ▶ Euskararen erabilera hutsa 10 puntu.
- i) Jarduerak berdintasun harremanak sustatzeko eta bultzatzeko lanari egiten dion ekarpena (hizkuntza, arraza, erlijioa edo sexua dela eta) ..... **gehienez ere 5 puntu.**

- j) Ingurumena eta natur ingurunea kontuan hartzea eta errespetatzea ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- k) Ingurumena eta natur ingurunea kontuan hartzea eta errespetatzea ..... **gehienez ere 5 puntu.**

**45. artikulua.- EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA.**

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpena erakunde onuradunei jakinaraziko zaie behar bezala arrazoituta eta gehienez ere lau hilabeteko epean, betiere diru laguntza eskatu zenetik zenbatzen hasita.

**46. artikulua.- DIRU LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA.**

Erakunde onuradunek justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko bi hilabeteko epea izango dute, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita; hori hala izango da, deialdian bestelako eperik zehazten ez bada.

## LAUGARREN SEKZIOA

# UDALERRIKO MERKATARITZAN EUSKARAZKO ERROTULUAK, WEBGUNEAK ETA IRUDI KORPORATIBOAK INSTALATZEKO DIRU LAGUNTZAK

### 47. artikulua.- DIRU LAGUNTZAREN GAIA.

- 1.- Diru laguntza honen gaia da Erandioko merkataritza finantzatzea euskarazko errotuluak, webguneak eta irudi korporatiboak instalatzeko edo euskaraz eta gaztelaniaz instalatzeko, baina euskarari lehentasuna emanaz. Horretarako, **ERANDIOKO UDALAK** hizkuntza ofizialak erabiltzeko ezarri eta onetsitako hizkuntz irizpideei jarraituko zaie.

Eskabideei uko egingo zaie, baldin eta testua oker idatzita badago, akats gramatikalak baditu eta norberaren izena, abizena edo izen-abizenak agertzen badira edo establezimendu, lokal edo jardueraren izentzat har daitekeen hitz edo adierazpidea.

- 2.- Diru laguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz. Era berean, diru laguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste batzuekin bateratu ahal izango da.
- 3.- Ezarritako beharkizunak betetzen dituzten eskabideen artean ez da lehentasun hurrenkerarik egongo, baldin eta deialdian zainpetutako kreditua nahikoa bada; hartara, eskubideen kopuruari men egingo zaio, behin aurkezpen epea amaitu eta gero.

### 48. artikulua.- ERAKUNDE ONURADUNAK.

- 1.- Pertsona edo erakunde onuradunak izateko, ordenantza honetan ezarritako beharkizunak betetzeaz gain, honakoak ere bete behar izango dira:
  - Euskarazko errotuluak edo euskara eta gaztelaniazko errotuluak (euskarari lehentasuna emanaz) instalatzeagatiko diru laguntza eskuratu ahal izango dute egoitza Erandion duten merkataritza eta ostalaritza establezimenduetako arduradunek.

- Euskarazko irudi korporatiboa edo euskara eta gaztelaniazko irudi korporatiboa (euskarari lehentasuna emanez) instalatzeagatiko diru laguntza eskuratu ahal izango dute egoitza Erandion duten merkataritza eta ostalaritza establezimenduetako arduradunek.
- Euskarazko webgunea edo euskara eta gaztelaniazko webgunea (euskarari lehentasuna emanez) abian jartzeagatiko diru laguntza eskuratu ahal izango dute udalerriko elkarte edo erakundeek.

Edozein kasutan ere, behartuta egongo dira Gizarte Segurantzaren ordainketa eta zerga zorren ordainketa egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztera.

- 2.- Aurreko ekitaldian webgunea egiteko diru laguntza jaso zuten erakundeek ere jaso ahal izango dituzte dagokion urteko diru laguntzak.

#### 49. artikulua.- **ESKABIDEAK.**

Ordenantza honen I. tituluak araututako eskabide normalizatuaz gain, honakoa aurkeztu behar izango da:

- Kanpoaldeko errotuluaren testua eta argazkia, irudi korporatiboaren testu eta argazkia edo webgunearen testua. Testuak zuzen idatzi egon behar du. Horretarako, interesdunak laguntza teknikoa eskatu ahal izango dio udaleko euskara zerbitzuari.

#### 50. artikulua.- **BALORAZIO IRIZPIDEAK.**

##### 1.- **ERROTULAZIOA:**

###### a) **Euskara hutsezko errotulazioa:**

Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %50 (ez da 500 eurotik gorakoa izango).

###### b) **Euskara eta gaztelaniazko errotulazioa:**

Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %25 (ez da 300 eurotik gorakoa izango).

##### 2.- **IRUDI KORPORATIBOA:**

###### a) **Euskara hutsezko irudi korporatiboa:**

Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %50 (ez da 500 eurotik gorakoa izango).

b) **Euskara eta gaztelaniazko irudi korporatiboa:**

Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %25 (ez da 300 eurotik gorakoa izango).

3.- **WEBGUNEAK:**

a) **Euskara hutsezko webguneak:**

Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %50 (ez da 800 eurotik gorakoa izango).

b) **Euskara eta gaztelaniazko webguneak:**

Diruz lagunduko da justifikatutakoaren %25 (ez da 500 eurotik gorakoa izango).

51. artikulua.- **EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA.**

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpena erakunde onuradunei jakinaraziko zaie behar bezala arrazoituta eta gehienez ere lau hilabeteko epean, betiere diru laguntza eskatu zenetik zenbatzen hasita.

52. artikulua.- **DIRU LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA.**

Erakunde onuradunek justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko bi hilabeteko epea izango dute, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita; hori hala izango da, deialdian bestelako eperik zehazten ez bada.

## BOSGARREN SEKZIOA

# EUSKARAZKO IKASTAROAK EGITEKO DIRU

## LAGUNTZAK

### 53. artikulua.- DIRU LAGUNTZAREN GAIA.

- 1.- Diru laguntza honen gaia da 16 urtetik gorakoak diren eta barnetegietan edo euskaltegi publiko edo pribatu homologatuetan euskalduntze nahiz alfabetatze ikastaroak egin dituzten Erandioko biztanle eta herritarrei diru laguntzak ematea.
- 2.- Diru laguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz. Era berean, diru laguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste batzuekin bateratu ahal izango da.

### 54. artikulua.- ESKABIDEAK.

Eskabideekin batera, honako dokumentazioa ere aurkeztu behar izango da:

- 1.- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- 2.- Matrikula ordaindua izan delako ziurtagiriaren fotokopia. Irakaskuntza barnetegi batean eman bada, matrikulari huts-hutsean dagokion kostuaren desglose bat egin beharko da; izan ere, matrikula baino ez da kontuan hartuko eta ez egonaldia.
- 3.- Euskaltegiaren ziurtagiria. Bertan justifikatu behar izango da asistentzia %85etik gorakoa izan dela.

Ziurtagiri horietaz gain, goragoko diru laguntzak eskuratu nahi dituztenek honakoak aurkeztuko dituzte:

**Otik 15 urtera bitarteko seme-alabak dituzten ikasleak:**

- ▶ Famili liburuaren fotokopia.
- ▶ Semea edo alaba matrikulaturik dagoen ikastetxearen ziurtagiria.

**Haurren edo adineko pertsonen zaintzaileak:**

- ▶ Lan egiten duten erakundearen ziurtagiria edo zerbitzuak ematen dizkioten familiaren adierazpena.

**Merkataritza edo ostalaritzako enplegatuak edo titularrak:**

- ▶ Establezimenduaren legezko ordezkariak emandako ziurtagiria.

**Aisialdiko begiraleak:**

- ▶ Aisialdiko begiralearen titulua edo prestakuntza ikastaroa egiten ari delako ziurtagiria.

**Famili unitate bakoitzeko, oinarri hauetan ezarritakoak baino sarrera txikiagoak dituzten ikasleak:**

- ▶ Famili unitatea osatzen dutenen PFEZren aitortpena.
- ▶ PFEZren aitortpena aurkeztu behar ez denean, eskuratutako sarreren egiazttagiria (Gizarte Segurantzaren ziurtagiria edo beharrezko erakundearena).
- ▶ Familiaren erroldatze agiria (udalaren estatistika sailean).

**Oinarrizko errentaren hartzaileak edo gizarte larrialdiko laguntzenak:**

- ▶ Diru laguntza horiek jaso direla egiaztatzen duen ziurtagiria.

**Lanik gabeko ikasleak, prestaziorik jasotzen ez badute:**

- ▶ Lana eskatzeko inskripzioaren frogagiria, betiere eskatutako diru laguntzaren ikastaroa hasi baino lehenago.

- ▶ Langabeziagatiko prestazioa ez dela jasotzen egiaztatzen duen ziurtagiria.

### **Araututako ikastetxeetan inskribatutako ikasleak:**

- ▶ Ikasle txartelaren fotokopia edo hezkuntza zentroaren egiaztatagiria.

## **55. artikulua.- PERTSONA ONURADUNAK.**

- 1.- Diru laguntza hau eskuratu ahal izango dute Erandion erroldaturik dauden eta barnetegietan nahiz euskaltegi publiko edo pribatu homologatuetan euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten pertsona guztiek.
- 2.- Ezin izango dira diru laguntza honen onuradunak izan Hizkuntz Eskola Ofizialean edo IRALE edo IVAPen programa zehatzen bitartez ikastaroren bat egin dutenak, ez eta enpresa edo erakunde baten diru laguntza jasotzen dutenak ere.

## **56. artikulua.- DIRU LAGUNTZAK ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Jarraian zehaztutako kopuruei dagozkien diru laguntzak emango dira, betiere udal euskaltegiko tasa erreferentziatzen hartuz, ikasturterako **ERANDIOKO UDALAREN 20.** zerga ordenantzaren finkatutakoa:

a) Matrikularen kostuaren %30eko diru laguntza:

- ▶ %85eko asistentzia ziurtatzen duten ikasleak.
- ▶ Famili unitatearen barruan Erandioko Udalaren 20. zerga ordenantzaren II. taulan (ordenantza horrek udal euskaltegiko tasak arautzen ditu) ezarritako sarrerak gainditzen ez dituzten pertsonak.
- ▶ Merkataritza eta ostalaritzako enplegatu eta titularrak.
- ▶ Araututako hezkuntza zentro batean inskribatutako ikasleak.

b) Matrikularen kostuaren %50eko diru laguntza:

- ▶ Oti 15 urtera bitarteko seme-alabak dituzten ikasleak.
- ▶ Umeen eta adineko pertsonen zaintzaileak.

- ▶ Merkataritza eta ostalaritzako enpleguak.
  - ▶ Aisialdiko begiraleak.
- c) Matrikularen kostuaren %75eko diru laguntza:
- ▶ Bi kidek edo gehiagok euskara ikasten diharduten famili unitateak.
  - ▶ Urteko eta kide bakoitzeko 3.460,00 euroko sarrerak gainditzen ez dituzten famili unitateetako pertsonak.
- d) Matrikularen %100eko diru laguntza:
- ▶ Oinarrizko errentaren hartzaileak edo gizarte larrialdiko laguntzenak.

Kasu guztietan %80ko asistentzia eta matrikulatutako urratsen %65eko gainditze maila exijituko da.

#### 57. artikulua.- **EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA.**

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpena pertsona onuradunei jakinaraziko zaie behar bezala arrazoituta eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, betiere eskabideak eta dokumentazioa emateko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

#### 58. artikulua.- **DIRU LAGUNTZA ESKATZEKO EPEA.**

Beharrezko dokumentazioa erantsi eta gero, diru laguntza eskatu ahal izango da urte bakoitzeko **urtarrilaren 2tik irailaren 30era bitartean**; hori horrela izango da, deialdiak bestelako eperik ezartzen ez badu.

## HIRUGARREN KAPITULUA:

### KIROL ARLOKO DIRU LAGUNTZAK

#### SEKZIO BAKARRA

#### ERANDIKO UDALERRIAN KIROL JARDUERAK FINANTZATZERA ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK

##### 59. artikulua.- DIRU LAGUNTZAREN GAIA.

- 1.- Diru laguntza honen gaia da elkarteek edo erakundeek kirol jarduerak antolatzena bideratutako ekimenak finantzatzea, urteko egitasmoaren ekintzak eta jarduerak finantzatuz, hau da, erakunde eskatzaileak ariketa eta bestelako kirol proiektuak garatzeko ohiko jardunbidearen programaren zati diren jarduerak, bereziki berritzaileak direnak.
- 2.- Diru laguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz. Era berean, diru laguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste batzuekin bateratu ahal izango da.

##### 60. artikulua.- ERAKUNDE ONURADUNAK.

- 1.- Erakunde onuraduntzat hartuko dira aurreko puntuan deskribatutako jarduera sustatzen edo aurrera eramaten duten pertsona fisiko edo juridikoak, horien barruan nortasun juridiko propiorik ez dutenak sartuz.
- 2.- Ordenantza honetan ezarritako beharkizunez gain, erakunde onuradunek honako hauek ere bete behar izango dituzte:
  - Irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, legez osatuak eta Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan, Udal Erregistroan edo bietan

inskribatuak egotea, Erandion sozietate egoitza izatea eta euren jarduerak udalerrian burutzea. Edozein kasutan ere, Gizarte Segurantzarekiko zorrak eta zerga zorrak ordainduta dituztelako ziurtagiriak aurkeztu behar izango dituzte.

- Urtebeteko antzinatasuna izatea Erandioko Elkarteen Udal erregistroan inskribatu zenetik.
- Ordezkaritza partikularreko edo taldeko ordezkaritzako pertsona fisikoak izatea, noizean behingo ekimena dutenak, irabazi-asmorik gabekoak eta udalerrian erroldatuak. Jarduerak edo proiektuak Erandion egin behar izango dira edo Erandioko udalerraren izenean edo Erandioko biztanleen onuraz.

#### 61. artikulua.- **BALORAZIO IRIZPIDEAK.**

Balorazio irizpideak honakoak izango dira:

- a) Tradizioa: elkartea sortu zen urtea: ..... **gehienez ere 4 puntu.**
- ▶ Urte 1etik 5 urtera arteko puntu 1. antzinatasuna .....
  - ▶ 6 urtetik gora eta 10 urtera arteko antzinatasuna ..... 2 puntu.
  - ▶ 11 urtetik 15 urtera arteko 3 puntu. antzinatasuna .....
  - ▶ 16 urtetik gorako antzinatasuna ..... 4 puntu.
- b) Erakunde eskatzaileak proposatzen dituen kirol jardueren edo proiektuen jarraitasuna: ..... **gehienez ere 4 puntu.**
- ▶ 1etik 5 ediziora bitartean puntu 1. ....
  - ▶ 6 ediziotik gora eta 10 ediziora arte 2 puntu. ....
  - ▶ 11 ediziotik 15era arte ..... 3 puntu.
  - 16 ediziotik gora ..... 4 puntu.

- c) Elkarteko pertsona kopurua: ..... **gehienez ere 4 puntu.**
- ▶ 20 pertsonara arte ..... puntu 1.
  - ▶ 20tik 50 pertsonara arte ..... 2 puntu.
  - ▶ 50etik 100 pertsonara arte ..... 3 puntu.
  - ▶ 100 pertsonatik gora ..... 4 puntu.
- d) Bideragarritasun ekonomikoa: elkartearen finantzazioa eta udaletik kanpoko finantzazio iturriak: ..... **gehienez ere 9 puntu.**
- ▶ Bazkideen kuotengatiko autofinantzazioa ..... 2 puntu.
  - ▶ Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzak jasotzea ..... 2 puntu.
  - ▶ Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak jasotzea ..... 2 puntu.
  - Laguntza pribatuak (babesleak, laguntzaileak...)..... 3 puntu.
- e) Emakumezkoen partaidetza eta berdintasuna sustatzea: ..... **gehienez ere 4 puntu.**
- ▶ Emakumezkoen presentzia zuzendaritzan..... 2 puntu.
  - Emakumezkoen presentzia bazkide gisa, kopurua %25etik gorakoa denean..... 2 puntu.
- f) Erakundeak elkarteen edo udalaren beste programa edo egitasmo batzuekin lankidetzan jardutea: ..... **gehienez ere 14 puntu.**
- ▶ Jai batzordearekin lankidetzan jardutea ..... 5 puntu.
  - ▶ Beste kultur erakunde batzuekin lankidetzan jardutea ..... 3 puntu.

- ▶ Bestelako kirol erakunde batzuekin lankidetzan jardutea ..... 3 puntu.
  - Udal programekin lankidetzan jardutea ..... 3 puntu.
- g) Elkarte udalerrriaren kanpoaldean kokaturik egotea ..... **gehienez ere 3 puntu.****
- ▶ Egoitza Altzagan edo Astrabuduan egotea ..... puntu 1.
  - ▶ Egoitza Erandio Goikoan egotea ..... 2 puntu.
  - Egoitza beste auzo batzuetan egotea 3 puntu.
- h) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera, honako baremoaren arabera ..... **gehienez ere 10 puntu.****
- ▶ Bi hizkuntzen erabilera berdina edo euskararen lehentasunezko erabilera..... 5 puntu.
  - ▶ Euskararen erabilera hutsa 10 puntu.
- i) Erandio udalerrri gisa sustatzea ..... **gehienez ere 5 puntu.****
- ▶ Bi auzotan presentzia izatea ..... 3 puntu.
  - ▶ Hiru auzotan presentzia izatea ..... 4 puntu.
  - Hiru auzotan baino gehiagotan presentzia izatea ..... 5 puntu.
- j) Programaren gizarte eta kultur interesa ..... **gehienez ere 32 puntu.****
- ▶ Udalerriko kirol premiei erantzutea ..... 10 puntu.
  - ▶ Jardueraren eragina udalerrriaren irudian ..... 4 puntu.
  - ▶ Pertsona hartzaileen edo partaideen kopurua ..... 4 puntu.
  - ▶ Elementu berritzaileak ..... 4 puntu.

- ▶ Euskal Herriko herri kirolen sustapena ..... 5 puntu.
  - Antolakuntza, egitura eta ekonomi ahaleginak ..... 5 puntu.
- k) Proiektuaren kalitate teknikoa ..... **gehienez ere 10 puntu.**

Gizarte eta kirol arloko proiektu bat egitea honako metodologia honi jarraituz:

- ▶ Justifikazioa. Proiektua egitea azaltzen duten arrazoiak.
- ▶ Eskuratu nahi diren helburuak.
- ▶ Garatu beharreko jarduerak.
- ▶ Hartzaileak.
- ▶ Beharrezko ekonomi, teknika eta giza baliabideak.
- ▶ Ebaluazioa.

**62. artikulua.- EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA.**

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpena behar bezala arrazoituta jakinaraziko zaie erakunde onuradunei gehienez ere **lau hilabeteko epean**, berori eskatu zenetik zenbatzen hasita.

**63. artikulua.- DIRU LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA.**

Erakunde onuradunek justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko **bi hilabeteko epea** izango dute, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita; hori hala izango da, deialdian bestelako eperik zehazten ez bada, baina edozein kasutan ere **hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehenago** aurkeztu behar izango da.

## LAUGARREN KAPITULUA:

# **BERDINTASUNAREN ARLOKO DIRU LAGUNTZAK**

## SEKZIO BAKARRA

### **ERANDIOKO UDALERRIAN BERDINTASUN ARLOKO** **JARDUERAK FINANTZATZERA ZUZENDUTAKO DIRU** **LAGUNTZAK**

#### 64. artikulua.- **DIRU LAGUNTZAREN GAIA.**

- 1.- Diru laguntza honen gaia da ondoko xedea duten jarduerak finantzatzea:
- Aukera berdintasuna sustatzea eta bultzatzea eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak gainditzea.
  - Erandioko emakumezkoen asoziazionismoa bultzatzea eta erakunde, gizarte eta kultur esparruan euren partaidetza sustatzea.
  - Erandioko herritarrak eskubide eta aukera berdintasunaren gainean sentsibilizatzea eta kontzientziatzea.
  - Emakumezkoen partaidetza aktiboa aldeztu duten elkarteetan organo autonomoen sustapena bultzatzea, bai eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak ere.
  - Aukera berdintasunaren arloa eta emakumezkoen eskubideen defentsa eta sustapena ikertzeko, horien inguruan sentsibilizatzeko eta horiek zabaltzeko jarduerak.
  - Emakumezkoen kontra bideratutako bortizkeria desagerraraztera, biktimen eskubideak defendatzera eta euren susperraldi pertsonal nahiz gizarte normalizaziora sustatzera zuzendutako jarduerak. Jarduera horiek udalak sustatuko osagarriak izan beharko dute.

- Erantzukizun banatuaren inguruan sentsibilizatzea eta sustatzea eta norberaren, familiaren eta lanbidearen bitzta bateratzera zuzendutako jarduerak.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen eskubide eta aukera berdintasuna sustatzera bideratutako beste batzuk, hala eremu publikoan nola eremu pribatuan.

Dantza, sukaldaritza, joskintza, eskulangintza, txango eta gastronomia arloko jarduerak diruz lagundu ahal izateko, horien barruan aukera berdintasunari buruzko sentsibilizazio, prestakuntza edota informazio jarduera osagarriak sartu behar izango dira.

Diru laguntzatik kanpo geratuko dira:

- ERANDIOKO UDALEKO Berdintasun Zerbitzuak bere eskumenak egikaritzean modu egituratuan egiten diharduen jarduerak egitea ekarriko duten proiektuak edota jarduerak.
- Edozein kontzeptutan inbertitzera zuzendutako eskabideak.
- Elkarteko pertsonentzat besterik garatuko ez diren proiektuak.

- 2.- Diru laguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz. Era berean, diru laguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste batzuekin bateratu ahal izango da.

## **65. artikulua.- ESKABIDEAK.**

Eskabideekin batera, honako dokumentazioa ere aurkeztu behar izango da:

- 1.- Diru laguntzak eskatzeko inprimaki normalizatua, behar bezala bete; nolana ere den, horren barnean honako atalak bete behar izango dira:
  - a) Diru Laguntzei buruzko Legearen 13. artikulua ezarritako debekuak ez direla betetzen eta zerga betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta daudela egiaztatzen duen adierazpena.
  - b) Eskatutako bestelako diru laguntzetako datuak jasotzen dituen adierazpena.

- 2.- Diru laguntza eskatzen den programa, proiektu eta jarduera, horren barruan memoria eta aurrekontu bat sartuz (sarreraren eta gastuen aurreikuspena). Diru laguntza jarduera, ekintza edo ekimen desberdinen multzo bat finantzatzeko eskatzen bada eta horiek guztiak diru laguntza baten ildo berekoak badira, aipatutako jarduera, ekintza edo ekimen guztiak programa edo proiektu bakarrean multzokatu behar izango dira, eskabide bakarra osatuz, balorazioari eta ebazpenari begira.
- 3.- Elkartearen estatutuen kopiak eta hirugarrenen fitxa (ordurako udalaren esku ez badaude).

Gerta daiteke programa, proiektua, jarduera edo jarduerak diru laguntzen ildo batean baino gehiagotan sartu ahal izatea eta horretarako beharrezko deialdia onetsi izana norgehiagokako araubidean; halakoetan, bada, nahikoa izango da eskabide bakarra aurkeztea, baina, betiere beren beregi adieraziz eskabidea zeintzuk deialdi eta ildotara aurkezten den.

#### 66. artikulua.- **ERAKUNDE ONURADUNAK.**

- 1.- Erakunde onuraduntzat hartuko dira aurreko puntuan deskribatutako jarduera sustatzen edo aurrera eramaten duten pertsona fisiko edo juridikoak, horien barruan nortasun juridiko propioz ez dutenak sartuz.
- 2.- Ordenantza honetan ezarritako beharkizunez gain, erakunde onuradunek honako hauek ere bete behar izango dituzte:
  - Irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, legez osatuak eta beharrezko erregistroan inskribatuak, eta bere jarduerak udalerrian garatzea. Edozein kasutan ere, Gizarte Segurantzarekiko zorrak eta zerga zorrak ordainduta dituztelako ziurtagiriak aurkeztu behar izango dituzte.
  - Ordezkaritza partikularreko edo taldeko ordezkaritzako pertsona fisikoak izatea, noizean behingo ekimena dutenak, irabazi-asmorik gabekoak eta udalerrian erroldatuak.

**67. artikulua.- BALORAZIO IRIZPIDEAK.**

Balorazio irizpideak honakoak izango dira:

**PROGRAMAREN EDO JAURDUERAREN EZAUGARRIAK**

- |    |  |                                   |
|----|--|-----------------------------------|
| a) | Helburuak:<br>.....  | <b>gehienez ere 10<br/>puntu.</b> |
| b) | Jarduera edo programa helburuetara egokitzea<br>eta koherentzia: .....   | <b>gehienez ere 10<br/>puntu.</b> |
| c) | Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna .....   | <b>gehienez ere 7<br/>puntu.</b>  |
| d) | Programa edo jarduera ebaluatzeko irizpidea .....  | <b>gehienez ere 10<br/>puntu.</b> |
| e) | Osagai berritzaileak sartzea .....   | <b>gehienez ere 3<br/>puntu.</b>  |
| f) | Estaltzen dituen gizarte eta kultur premiak .....  | <b>gehienez ere 4<br/>puntu.</b>  |
| g) | Herritarren sektore hartzailea eta aurreikusitako<br>pertsona hartzaileen kopurua (sexuaren arabera<br>banatua) .....      | <b>gehienez ere 6<br/>puntu.</b>  |
| h) | Kontziliazio neurriak eskaintzen duen ala ez<br>(hartzaindegiko zerbitzuak eta abar) .....                                 | <b>gehienez ere 5<br/>puntu.</b>  |
| i) | Kultur aniztasuna kontuan hartzen duen .....   | <b>gehienez ere 4<br/>puntu.</b>  |
| j) | EAEko hizkuntza ofizialen erabilera, honako<br>baremoaren arabera .....  | <b>gehienez ere 10<br/>puntu.</b> |
|    | <ul style="list-style-type: none"> <li>▶ Bi hizkuntzen erabilera berdina edo euskararen lehentasunezko 5 puntu.</li> </ul> |                                   |

erabilera.....

- Euskararen erabilera hutsa 10 puntu.

k) Proiektuaren antolakuntza, taxuketa eta iraupena. **gehienez ere 4 puntu.**

l) Jardueraren kostua eta elkarteak hari egindako ekarkina ..... **gehienez ere 4 puntu.**

## **UDALAREKIN PARTE HARTZEA ETA LANKIDETZAN JARDUTEA**

- a) Berdintasunaren aldeko Udal Kontseiluan moduan aktiboan parte hartzea ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- b) Berdintasunari buruzko udal plangintzaren helburuetara egokitzea: ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- c) Udal jardueren antolakuntzan laguntzea ..... **gehienez ere 5 puntu.**

## **ELKARTEAREN EZAUGARRIAK**

- a) Antolakuntzan inplikaturako pertsonen kopurua ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- b) Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunera bideraturako politiken edo jardueren garapenean izandako ibilbidea: ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- c) Erabakimen organoetan emakumezkoen eta gizonezkoen ordezkari-tza parekatua (gutxien-gutxienik %40koa) ..... **gehienez ere 5 puntu.**

### **68. artikulua.- EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA.**

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpena erakunde onuradunei jakinaraziko zaie behar bezala arrazoituta eta gehienez ere lau hilabeteko epean, betiere diru laguntza eskatu zenetik zenbatzen hasita.



69. artikulua.- **DIRU LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA.**

Erakunde onuradunek justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko **bi hilabeteko epea** izango dute, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita; hori hala izango da, deialdian bestelako eperik zehazten ez bada.

## **BOSGARREN KAPITULUA:**

# **MERKATARITZA ARLOKO DIRU LAGUNTZAK**

## **SEKZIO BAKARRA**

### **ERANDION HURBILEKO MERKATARITZA DINAMIZATZEKO**

### **ETA MERKATARITZAN ASOZIAZIONISMOA ETA**

### **PRESTAKUNTZA SUSTATZEKO FINANTZATZERA**

### **ZUZENDUTAKO DIRU LAGUNTZAK**

#### **70. artikulua.-DIRU LAGUNTZAREN GAIA.**

- 1.- Diru laguntza honen gaia da ondorengoetara zuzendutako ekimenak finantzatzea:
  - Enpresa aholkulari espezializatuek merkataritza guneetan edo merkataritza zentro irekietan edo antzekoetan azterlanak, merkataritzako jarduketa programak, diseinuak, erregistroak eta bereizgarri edo logotipoen defentsa egitetik eratorritako gastuak, baldin eta hurbileko merkataritzaren dinamizazioan zuzeneko eragina badute deialdi bakoitzean ezarritako baldintzen arabera.
  - Sektorearen edo merkataritza guneen sustapenera zuzendutako kultur dinamizazioak sorrarazitako gastuak, betiere ere deialdi bakoitzean ezarritako baldintzen arabera.
  - Erakunde eskatzaileak osatzeko eta lanean jarduteko gastuak, betiere ere deialdi bakoitzean ezarritako baldintzen arabera.
  - Ordenantza honen eremuan sartutako erakundeek egindako prestakuntza ekintzak, betiere ere deialdi bakoitzean ezarritako baldintzen arabera.
  - Erakunde publikoek emandako diru laguntzen osagarria (bateragarriak izanez gero), betiere jatorrian diruz lagundutako gastuen ehuneko

ehuna estaltzeko helburuarekin, baldin eta horiek merkataritza establezimenduei badagozkie banan-banan; ekintza horien artean, besteak beste, sustapena, berritasuna eta teknologia berrian bitarteko transmisioa eta ikaskuntza sar daitezke.

Diru laguntzatik kanpo geratuko dira:

- Epai irmo bidez diru laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko debekuaren zigorra jaso dutenak.
- Lehiaketa adierazpena eskatu dutenak, edozein prozeduraren bitartez kaudimengabetzat hartuak izan direnak, lehiaketan daudelako adierazpena egin dutenak edo esku-hartze judizialaren menpe daudenak Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2. b) artikulua ezarritakoaren arabera.
- Administrazioarekin izandako kontratuen suntsiarazpenaren erruduntzat hartuak izan direnak edozein ebazpen irmoren bitartez.
- Erakundearen legezko ordezkari den pertsona Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2.b) artikulua aipatzen dituen bateraezintasun kasuetariko batean egotea.
- Indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak ordaindurik ez izatea.
- Zerga egoitza arau bidez paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialde edo lurralde batean izatea.
- Diru laguntzen itzulketen ondoriozko betebeharrak ordaindurik ez izatea.
- Diru laguntzak eskuratzeko aukera galdu dutenak ebazpen irmo baten bidezko zigorra dela eta, betiere Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak edo Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Legeak ezarritakoaren arabera.
- Era berean, ezin izango dira onuradunak izan Elkartzeko Eskubideari buruzko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua 5 eta 6. idatz-zatietan ezarritako debeku kasuren batean sartzen diren merkataritza elkarteak.
- Deialdi honen kontura diru laguntza eskatzen duten erakundeek ondorengo beharrik izango dituzte eskabideak

aurkezteko epea amaitzean; beharkizun horiei, gainera, eutsi behar izango zaie diru laguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan zehar:

- a) Legez eta eraz osaturik eta inskribaturik egotea.
  - b) Jarduera gehienbat Erandioko udalerrian garatzea.
  - c) **ERANDIOKO UDALAREKIN** zorrik ez izatea ordaintzeko betearazpen epean, zor horiek behar bezala bermaturik ez badaude.
- Edozein kasutan ere, ez dira ordenantza honetan araututako diru laguntzen onuradunak izango Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikularen 2 eta 3. idatz zatietan ezarritako kasuetariko edozein betetzen duten erakundeak.
- 2.- Diru laguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz. Era berean, diru laguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste batzuekin bateratu ahal izango da.

## 71. artikulua.- **ESKABIDEAK.**

Eskabideekin batera, honako dokumentazioa ere aurkeztu behar izango da:

- a) Erakunde eskatzailearen estatutuak, beharrezko erregistroan behar bezala inskribatuak.
- b) Elkartutako enpresen zerrenda, elkartutako pertsonen kopurua, izena edo sozietate izena, IFZ edota IFK zehaztuz.
- c) Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskalaren txartela.
- d) Erakundeko ordezkariaren NANA.
- e) Erakundeko legezko ordezkariaren ahalordea egiaztatzen duen dokumentazioa.
- f) Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikularen 7. idatz-zatian ezarritako prozedurak direla eta, erakundearen legezko ordezkariaren justifikazioa erakunde ez dagoela erakunde onuradunaren

izaera lortzeko lege horren 13. artikulua 2 eta 3. idatz-zatiek ezarritako debeku kasu bakar batean ere egiaztatuz.

- g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ziurtagiriok sei hilabeteko baliozkotasuna izango dute, sinatzen direnetik zenbatzen hasita. Ziurtagiria iraungitzen bada betebeharra fiskalizatzeko data baino lehenago, erakunde onuradunak ziurtagiri eguneratua aurkeztu behar izango du, gastuaren kudeaketa zerbitzuak hala eskaturik.
- h) Udalarekin zerga betebeharrak ordaindurik daudela egiaztatzen duen adierazpena; edozein kasutan ere, diru laguntza eman ondoren eta jaso baino lehenago, organo eskudunak ofizioski eskatu ahal izango du betebeharrak beteta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- i) Erakunde eskatzailearen ekonomi eta finantza informazioa eta jardueraren gainekoa; informazio hori guztia deialdiaren aurreko bi ekitaldietakoa izango da edo osatu denetik honakoa, erakunde eskatzailearen antzintasuna bi urtetik beherakoa bada.
- j) Proiektu berbererako beste erakunde batzuei eskatu edo handik jasotako laguntzen edo diru laguntzen gaineko adierazpena, haren kopurua eta data zehaztuz; halako laguntzarik ez badago, hori ere adierazi behar izango da.
- k) Erakundea **ERANDIOKO UDALAK** emandako aurreko diru laguntzen onuraduna izan bada, horiei darizkien beharkizunak bete direla egiaztatzen duen adierazpena.
- l) Erakunde onuradunak BEZaren salbuespenaz gozatzeko eskubidea aitorturik badauka eta, beraz, hari dagokion kopurua gastutzat hartzen behar bada, onuradunak benetan ordaintzen duelako, eskubide hori aitortua izan zaiola egiaztatzen duen ziurtagiria.
- m) Deialdi bakoitzean zehazten dena.
- n) Jatorrizko dokumentuak aurkeztuko dira edo fotokopia erkatua.
- o) Proiektuari buruzko datuak. Eskabidearekin batera, diru laguntza eskatzen den proiektuari buruzko deskripzio memoria zehatza aurkeztu behar izango da; memoria horretan honakoak agertuko dira gutxien-gutxienik: garatu beharreko jardueren edo ekintzen helburua, erabilera, premiaren justifikazioa, aukera, onurak, jarduketan kronograma eta ekintzen aurrekontu ekonomikoa.
- p) Kudeaketa organoak beharrezkotzat jotzen dituen bestelako agiriak, diru laguntzaren eskabidearen balorazio hobea egin ahal izateko.

## 72. artikulua.- **ERAKUNDE ONURADUNAK.**

- 1.- Onuraduntzat hartuko dira Erandion aurreko puntuan deskribatutako jarduera sustatzen edo aurrera eramaten duten merkatarik elkarrekin edo merkataritzako titularrak.
- 2.- Ordenantza honetan ezarritako beharkizunez gain, erakunde onuradunek honako hauek ere bete behar izango dituzte:
  - Legez osaturik eta beharrezko erregistroan inskribaturik dauden elkarrekin izatea eta jarduerak udalerrian garatzea. Edozein kasutan ere, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta daudela egiaztatzen duen ziurtagiriak aurkeztu behar izango dituzte.
  - Banan-banan hartuta, Erandioko udal mugartearen barruan dagoen merkataritza establezimendua izatea.

**73. artikulua.- BALORAZIO IRIZPIDEAK.**

Balorazio irizpideak honakoak izango dira:

- a) Proiektuak jarduera ekonomikoaren berpiztean edo suspertzean duen eragina: ..... **gehienez ere 30 puntu.**
- b) Eskatutako diru laguntzaren jarduerak Erandion izango duten merkataritza eragina: ..... **gehienez ere 20 puntu.**
- c) Proiektuak eremu edo gune jakin bateko asoziazionismoa sustatzeko izango duen eragina: ..... **gehienez ere 20 puntu.**
- d) Proiektuak irudi kolektibo bateratuan edo merkataritza sektore edo gune zehatz baten sustapenean izango duen eragina: ..... **gehienez ere 15 puntu.**
- e) Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa eta bideragarritasuna: ..... **gehienez ere 10 puntu.**
- f) Erakundearen ordezkagarritasun maila, jarduera sektorean elkartutako merkataritza enpresen kopurua edo diruz lagundutako jarduera zuzentzen zaion merkataritza gunea kontuan harturik: ..... **gehienez ere 5 puntu.**
- g) Hala badagokio, deialdi bakoitzean ezartzen diren irizpide zehatzak: ..... **gehienez ere 50 puntu.**

**74. artikulua.- EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA.**

Diru laguntzaren emakidari buruzko ebazpena erakunde onuradunei jakinaraziko zaie behar bezala arrazoituta eta gehienez ere lau hilabeteko epean, betiere diru laguntza eskatu zenetik zenbatzen hasita.

75. artikulua.- **DIRU LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA.**

Erakunde onuradunek justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko **bi hilabeteko epea** izango dute, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik zenbatzen hasita; hori hala izango da, deialdian bestelako eperik zehazten ez bada.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Hala badagokio, diru laguntzen oinarri arau-emaille zehatzek ezarritakoa gorabehera, ordenantza hau **ERANDIOKO UDALAK** emandako diru laguntzei aplikatuko zaie; era berean, indarrean jarraituko dute udal langile eta korporatiboen euskarazko ikastaroetarako asistentzia baldintzei buruzko arauak (220. BAO, 2001eko azaroaren 16koa).

## ALDI BATERAKO XEDAPENA

Ordenantza indarrean sartu baino lehenagoko prozeduretan, hasten den unean indarrean dagoen arautegia aplikatuko da.

## AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau **indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egun igarota**, betiere Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.

## I. ERANSKINA

### UDAL DIRU LAGUNTZAREN ESKABIDEA

<b>ESKATZAILEAREN IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS DE QUIEN SOLICITA</b>		<b>NAN / DNI</b>
<b>JAKINARAZPENAK EGITEKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTO DE NOTIFICACIONES</b>	<b>HERRIA / MUNICIPIO</b>	<b>TELEFONOA</b>
<input type="checkbox"/> Norbere izenean jarduten ari naiz / Actúo en nombre propio		
<input type="checkbox"/> Erakunde baten ordezkari moduan jarduten ari naiz / Actúo en representación de una entidad.		

<b>BAKARRIK BETE ESKATZAILEA PERTSONA JURIDIKOA IZANEZ GERO RELLENAR EL CUADRO EN EL CASO DE QUE EL/LA SEA UNA PERSONA JURÍDICA</b>		
<b>ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IZENA / NOMBRE DE LA ENTIDAD SOLICITANTE</b>		<b>IFK / CIF</b>
<b>JAKINARAZPENAK EGITEKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTO DE NOTIFICACIONES</b>	<b>HERRIA / MUNICIPIO</b>	<b>TELEFONOA</b>

<b>LEGEZKO ORDEZKARIA / REPRESENTANTE LEGAL</b>

<b>ESKAERAREN OBJEKTUA / OBJETO DE LA SOLICITUD</b>

<input type="checkbox"/> <b>Konturako ordainketak eskatzen ditut / Solicito pagos a cuenta.</b>
<input type="checkbox"/> <b>Aurretiazko ordainketa eskatzen dut / solicito el pago anticipado.</b>
<b>ESKATURIKO DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA / CUANTÍA SOLICITADA</b>

Erandion, 201 (e)ko ..... (a)ren ..... (e)an. En Erandio, a ..... de ..... de 201...
AGIRIA AURKEZTU DUEN PERTSONAREN SINADURA / FIRMA DE LA PERSONA QUE PRESENTA

IDENTIFIKAZIO EDO ORDEZKARITZA ZIURTATZEKO PERTSONA FISIKOEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK  
DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LAS PERSONAS FÍSICAS PARA LA ACREDITACIÓN DE LA IDENTIFICACIÓN O LA REPRESENTACIÓN

- Eskatzailearen NANaren fotokopia / Fotocopia del DNI de quienl solicitanta.
- Errolda ziurtagiria / Certificado de empadronamiento.

IDENTIFIKAZIO EDO ORDEZKARITZA ZIURTATZEKO PERTSONA FISIKOEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK  
DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LAS PERSONAS FÍSICAS PARA LA ACREDITACIÓN DE LA IDENTIFICACIÓN O LA REPRESENTACIÓN

- IFK / CIF.
- Behar bezala eta dagoklon erregistro ofizialean inskribatutako organo eta ordezkarien izendapenaren akordioa.  
Acuerdo de nombramiento de sus órganos y representantes, debidamente inscritos en su correspondiente Registro oficial si lo hubiere
- Inskribatutako estatutuak / Estatutos, igualmente inscritos.
- Ordezkariaren NAN / DNI del o la representante.

## II. ERANSKINA

### DIRU LAGUNTZAK ESKURATZEKO EZ DAGOELA BATERAEZINTASUNIK AZALTZEN DUEN ZINPEKO ADIERAZPENA.

Izen- ....., NAN: .....,  
abizenak

Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea: .....,  
.....

*(bakarrik bete eskatzailea pertsona juridikoa izanez gero),*

Honakoen izenean eta ordezkartzan: .....,  
.....

Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea: .....

..... IFK: .....,

.....

### **ADIERAZTEN DUT:**

Ez ni ez ordezkutzen dudan erakundea ez daude sarturik Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2. eta 13.3. artikuluek erakunde onuraduna izateko ezarritako bateraezintasun edo debeku kasuetariko bakar batean ere.

Eta horrela ager dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, nik sinatu dut .....n, 201....(e)ko .....(a)ren ..... (e)an.

Izpta.:

## III. ERANSKINA

### AURREKONTU EREDUA

.....

## (A)RI BURUZKO DIRU LAGUNTZARAKO

### AURREKONTUA

Izen- ....., NAN: .....,  
 abizenak

Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea: .....,  
 .....  
*(bakarrik bete eskatzailea pertsona juridikoa izanez gero),*

Honakoen izenean eta ordezkartzan: .....,  
 .....,

Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea: .....,  
 ..... IFK: .....,  
 .....

..... (a)ri buruzko diru laguntza eskatzeko honako aurrekontu hau aurkezten dut, diru laguntzaren kopurua zehatz dadin.

#### 1. GASTUA

▪ KONTZEPTUA	
▪ KOPURUA	

**ERANDIO**  
**ELIZATEKO UDALA**



AYUNTAMIENTO DE LA ANTIIGLESIA DE ERANDIO  
BIZKAIA



## 2. GASTUA

▪ KONTZEPTUA	
▪ KOPURUA	
▪ ERAKUNDE IGORLEA	

## 3. GASTUA

▪ KONTZEPTUA	
▪ KOPURUA	
▪ ERAKUNDE IGORLEA	

## 4. GASTUA

▪ KONTZEPTUA	
▪ KOPURUA	
▪ ERAKUNDE IGORLEA	

**GUZTIRA**

FINANTZAZIO ITURRIAK

Erandion, 201 (e)ko ..... (a)ren ..... (e))an.  
En Erandio, a ..... de ..... de 201...

IZPTA.:

## IV. ERANSKINA

### ZERGA ZORRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOAK ORDAINDUTA DAUDELA AZALTZEN DUEN ADIERAZPENA

**Erandioko Udalaren** Diru Laguntzei buruzko Ordenantzaren 7.e) artikulua ezarritako betebeharrak direla bide, eta Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araubidea onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.1. eta 24.4. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

Izen- ....., NAN: .....,  
abizenak

Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea: .....

*(bakarrik bete eskatzailea pertsona juridikoa izanez gero),*

Honakoen izenean eta ordezkartzan: .....

Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea: .....

..... IFK: .....,

### **ADIERAZTEN DUT:**

**LEHENA.-** ..... dela-eta eskatutako diru laguntzaren kopurua 3.000 eurotik beherakoa dela.

**BIGARRENA.-** Ordezkatzen dudan erakunde edo elkarteak ordainduta dituela zerga zorrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Eta horrela ager dadin eta, gorago aipatutako diru laguntzari dagokionez, beharrezko ondorioak ekar ditzan, agiri hau sinatu dut ....., 201....(e)ko .....(a)ren ..... (e)an.

IZPTA.:

## V. ERANSKINA

### FINANTZAZIOARI BURUZKO ADIERAZPENA

Izen- ..... , NAN: .....  
abizenak

Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea: .....  
.....

*(bakarrik bete eskatzailea pertsona juridikoa izanez gero),*

Honakoen izenean eta ordezkaritzan: .....  
.....

Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea: .....

..... IFK: .....,  
.....

#### ADIERAZTEN DUT:

**LEHENA.-** Ez dudala eskatu edo jaso **Erandioko Udalak** emandako diru laguntzarekin bateraezina den inolako fondorik.

**BIGARRENA.-** Erandioko Udalak emandako diru laguntzarekin bateragarri den honako fondo edo laguntzak jaso edo eskatu ditudala:

DIRU LAGUNTZA	ERAKUNDEA	KONTZEPTUA	ESKATUITAKO KOPURUA	EMANDAKO EDO JASOTAKO KOPURUA
LEHENGOA				
BIGARRENA				
HIRUGARRENA				
LAUGARRENA				
BOSGARRENA				

**HIRUGARRENA.-** Bigarren puntuan deskribatutako fondoak .....  
helbururako aplikatu direla, diru laguntzan eskatu bezala.

Eta horrela ager dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, nik sinatu dut .....n,  
201....(e)ko .....(a)ren ..... (e)an.

IZPTA.:



**BIZKAIA**